

JOKIN APALATEGI

**ERBIA BIPER**  
**BELTXEAN BEZALA**



JOKIN APALATEGI

**ERBIA BIPER**  
**BELTXEAN BEZALA**

**Utriusque Vasconiae**

© Jokin Apalategi

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2016ko abendua

ISBN: 978-84-944061-9-5

Lege-gordailua: SS 598-2016

Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaileak:

BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)

Tel.: 0033559592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

*Joseba Aurkenerenari  
eskerrik beroenak egindako  
irakurketa-zuzenketengatik.*

## SARRERA

1963ko urritik aitzina nire bizitzan haustura eta norabide aldaketa jabetu ziren. Haustura, orduarte, bizitza idealizatzeko neuzkan baloreak ipurtargi bilakatzen joan zirelako eta, aldi berean, haien tokia hartuz nire jokabidean funtsezko izango ziren herritar eta sozial baloreak sutsu piztu zirelako. Hasteko, nire bizian lehen aldiz, euskaraz idatzitako liburu bat irakurtzen hasi nintzen. Zoriontsu sentiarazi ninduen desafio hark. Mundu gozo hau nirea duk, esan nuen. Eta bat-batean euskaraz idatzi nezakeela frogatu nahi izan nion nire buruari. Zer idatzi pentsatzen jarri eta antzerki obra izan zitekeela iruditu zitzaidan. Nagikeriak utzi eta, nire baitan ematen ari ziren hausturen gazi-gezak kontatzera igaro nintzen. Liburuxka honetan agertzen diren bi antzerki obra hauek izan ziren nire lehen idazkera saioaren emaitza. Elizak eta estatuak eskuz esku burdinezko neurriekin inposatzen ziguten giroa, herri eta sozial ezjakintasuna, identitatearen osagai genituen faktoreen ukoa eta debekua, nahas-mahas, barrenaturik genituenak astinduz nola borrokara igaro ginen agertzen da hogeituro urteko gaztearen irudietan. Lehen pie-

za, Ataungo Sarako gelan On Joxe Mieli irakurri  
nion oso-osorik. Nik aipatzean euskaraz idazten  
hasi nintzela eta antzerki pieza bat nuela, berehala  
irakurtzeko eskatu baitzidan. Errespetu osoarekin,  
azken hitzeraino, entzun zuen nire irakurketa.

# I

## BORROKA ALA IHES

J. TXURDINTXO

JOKO LAGUNAK:

Lau ikasle: – Bi gizonezko (Jon eta Iñaki)  
– Bi emakumezko (Jone eta Arantxa)  
Gainera, Amaia eta Begoña daude  
Baita Begiralea, Zuzendaria eta Serenoa ere

Hogei urte inguruko ikasleak dira. Txukun eta ongi jantziak daude. Unibertsitatean dabilta, eta egoitza unibertsitarioan hartzen dute ostatu. Azken honetan sartzearekin Araudi propioak jarraitza behartuak daude. Gizarte ertzeraino erreprimatuan, hala eta guztiz, zirrikuetatik sartzen doatzen birgizabalioak eta garaiko munduan herri menperatu zirenetan ageri diren egoera ozpinduak igorritako mezuak gazte idealista haietan kontzientzia hartzeak eraginik barnemuinetan itsatsitako kezkek plazaratzen dituzte. Baina, euren Herriko errealitatea, desiragarria litzaiekeen birjaiotzatik urrun ikusten dute. Hau horrela, urduri eta sufrikarioz betebeterik bizi dira. Gizarte sanoago bat amesten dute.

Begiralea, Zuzendaria eta Serenoa dituzten lanbi-deen jantzi bereizgarriekin apainduak agertuko dira. Adinean sartu xamarak dira.

Begoña, gaztea da. Dirua balore bakartzat aitortzen duen emakume berekoia da.

Jokalekua:

Lehen bi ekitaldiak ondo apaindutako gela batean gertatzen dira. Bi aldeetatik sarrerak dituena da. Gibelean, eskubi aldetik mahai bat, bi edo hiru aulki ere ageri da. Hormetatik zintzilik apaingarri batzuk daude. Hirugarren ekitaldian etxe bateko edozein gela izan litekeena da jokaleku.

## LEHENENGO EKITALDIA

### I. AGERRALDIA

Oihala altxatzean Jon jokalekuan bakar-bakarrik dago. Mahai ertzean eserita eta hanka bat aulki gainean duela. Bereterretxeren «Haltzak ez du bihotzik» poema abesten ari da.

JON: (Orain pentsatuz, eta oso lasai) –Gizakia nor da?

Bai, gizakia esan dut. Nor gara gu: hura, zu, eta ni? Mundua zer da? Bai, mundua diot. Den-dena, begien aurrean daukaguna eta nortasun alorrean, gordeenean, nabarmentzen gaituen oro. Gizakia-  
ren ibilaldiak zentzurik bai al du? Eta munduak? Biak batasunean osatzekoak direla, baina elkar osatu al dezakete? Mundua bilakatzen doa etengabe.



Gizakia berriz, mundu indarren aurrean, gidaritza gogoetatsua daukan izaki bakarra da. Gizakia den izakiaren jarrera, borroka ala ihesa daiteke. Are gehiago, borrokan bakarrik datza gizakia den izakiaren aukera sano bakarra. Ihes ahala, gogoetatsu den gizakiak bakarrik dauka naturan. Eta konpromisotik eskapatzeko daukan ahala adierazten du. Beste izakiak oro, nahi ala ez, borroka dira. Izadi indarren jarraitzaile, beste aukerarik gabeak dira. Gizakia aske da, den hori, ez denean bihurtzeko. Munduko ustelkeriak, gizakiaren izakia, hainbat aldiz, ez izakian bilakatu izan dela salatzen du. Gure ihes bakoitza, denetik ez denerako urratsa da...

(Atea zabalduz, Amaia sartzen da jokalekuan, Joni begira jarririk, hura pentsalari ikustean, honela mintzo da...)

AMAIA: Zer zaude hain serio, ezbeharren bat al duzu?

JON: (Ageri duen egoera aldatu gabe). Ez nengoen. Ari nintzen.

AMAIA: Ari zinela, norekin? Lau hormen erdian bakarrik, eta ari zinela?

JON: (Altxatuz) Ez nago lau hormen erdian, bakarrik. Niretzat, mundua oro, bizidunak oro, bizidunen osagarri direnak oro, nire aurrean adi daude.

AMAIA: Zure zai? Ez zaidazu parregurerik eman! Gutaz ez da inor axolatzen.

JON: Nitaz eta berdin zutaz denak oroitzen ahal dira.

AMAIA: Baina Jon, sukarra duzu ala?

JON: Zuk, balore bat idoro, eta gizartean txertatu gabe dagoela konprobatzean, aurreko, garaiko eta ondorengo guztietan pentsatzen duzu.

AMAIA: Nola, nola da hori? Garbiago hitz egingo al didazu?

JON: Huts egindakoarekin aurkitzean, zergatik den hori, diozu, zure buruari. Eta ondoren, nola konpondu dezaket. Eta oso ondo pentsatzen duzu horrela jardutean. Baina, egiaztatu bai, baina eskuak toleztatu eta kitto gelditzen bazara, zer?

AMAIA: Ez dakit bada zer aderazi nahi duzun.

JON: Gauza hori zure hurrengoak ere huts egina dagoela aurkituko duela. Eta orduan zuk egin duzun galdera berbera egin dezake, zergatik hau? Eta beste galdera bat ere egin lezake: nor da huts egite horren erruduna? Eta horren bila abiatzen bada zurekin ere topa daiteke.

AMAIA: Nirekin ez! Nik ere huts egina idoro bainuen.

JON: Hari, ez dio axolarik izango, zuk nola aurkitu zenuen jakiteak, baizik zergatik erremediatzen ahalagindu ez zinen.

AMAIA: Nik, nire egunero bizitzan badut aski zereginik. Bakoitzak bere itzala ongo betetzen badugu, huts egiterik ez da izango.

JON: Ez noski, ez litzateke izango, Baina egunero bizitzak argi erakusten digu, anitz euren konpromisoari ihes eginaz dabiltzala.

AMAIA: Zer egingo da, bada! Gizakia horrelakoa da. Eta den bezala hartu behar da.

JON: Jarrera hori, nire iritzian, ez da jokabide sana.

AMAIA: Ez dut ulertzen, zergatik ez den.

JON: Gizarteko izakia da gizakia. Eta gizakiaren osotasuna nahi badu, gizartearekin aurkitu behar du.

AMAIA: Horixe bai! Gizarteari falta zaigun oro eskatu behar diogu.

JON: Baina, eskatzea ez da aski...

AMAIA: Ez, gainera bakoitzak hartu egin behar du.

JON: Gizarteak eman behar digu, baina, guk ere, gizarteari zor diogu.

AMAIA: Gizarteari zor?

JON: Bai, gizakiari zor diogu.

AMAIA: Nola ordea, gizarteari zor dioguna ordain dezakezu?

JON: Horretarako, gure interes eta betebeharren eza gutza eta praktika elkaturik joan behar dira. Gizakia ez da bakarti bat. Eta osatu nahi badu ere, ez da berekoi eta bakarti izanez osatuko, baizik eta gizartea osatzen duen heinean garatuko da. Eta gizartea, gizadia, mundua eta historia osatzea, gure Herri zehatza osatzetik igarotzen da.

AMAIA: Gizakiak, haren bizitza egoerako egin beharrrak betetzen baditu, ez al du, noski, gizartea ere osatzen?

JON: Bizitza-egoera kontzeptua, gizakiaren eginbehar oro agertzeko urriegi aurkitzen dut. Izan ere, bakoitzak aurkitu ditugun balore eta osagarriak gizarteari ere itzuli behar dizkiogula, agertzen al du? Zenbateraino da bokazio baten fruitu? Ez ala gara konformista eta gurekoi hori aipatzean?

AMAIA: Zure gogoetek badute arrazoi kutsurik...

JON: Guetariko bakoitzak bizimodu mugatu bat duen arren, areagoko ikuspegi bat edukiaz, gizaki balore eta gizarte traza duten denen eragile izan behar gara. Guztioi giza-egiturak axolako izan behar zaizkigu.

AMAIA: Baina, bizitza-egoeraren ikuspegitik gizarte-egiturak helburu dituenik ere bada.

JON: Batzuen bizitza-egoerarekin gizarteko den oro izendatzea ahulezia da. Guztion axola izan behar da gizarteko atalen izendapen zehatza promozionatzea. Izendatzen ez dena ez baita existitzen. Eta bereziki giza-egituretaz axolatzea garrantzizkoa da.

(Orain Jon mahai ertzean eseriko da, eta kitarra eskuan hartuz X.Etxeberrietaren poema berriro abestuko du. Amaia, bere aldetik, eskubiko ate ondoan zutik geldituko da).

## II. AGERRALDIA

(Lehengo biak, gehi Arantxa eta Iñaki)

Arantxa eta Iñaki ezkerreko atetik sartzen dira. Oso serio eta problematiko. Barruan direnei kasurik egin gabe, aurrera igarotzern dira. Elkarrekin hizketan sartu eta jarraituko dute. Bitartean jokagelen lehendik zeuden biak sartu berriak direnak ulertu nahirik harriduraz begiratzen dituzte.

ARANTXA: (Atean sartzearekin bat mintzatuz). Nola bateratu egia eta kontzientzia? Kontzientziak agintzen didana eginaz egiaren aurka baldin banoa. Egia zer da orduan? Egirik bai al da?

IÑAKI: Egiak izan behar du? Bestela ez ginateke haren bila jardungo. Ez genuke maiteko. Hala ere, gertakaria eta haren interpretazioa bereiztu behar ditugu. Zinezkoa eta egiazkoa, alegia.

ARANTXA: Egia modu abstraktuan izango da. Kontzeptu denez izatea ere edukiko du. Baina, egia inoiz haragitu al da gizartean? Bizi al da gure artean? Mundu honetan ematen al da?

IÑAKI: Bai, egiaren printza ederrik ageri da: maitasunaren bihozkadak, adibidez. Benetakosunaren sufrikarioak ere, bai!

ARANTXA: Baina, egia osorik inork ba al du? Gizaldiz gizaldi ez al doa borobiltzen?

IÑAKI: Bila gabiltza, eta zipriztinka agertzen zaigu, noski!

AMAIA: (Dagoen tokitik Arantxa eta Iñakiri zuzenki begira) Guk dugu egia osoa! (Esaldi hau entzutean, Arantxa eta Iñaki hurbiltzen zaizkio)

ARANTXA: Nortzuek, zeintzuek daukate egia osoa?

AMAIA: Betidanik ez al dugu entzun, egia oro guk daukagula? Eta guk bezala pentsaten ez dutenak guregana itzuli beharrean daudela?

ARANTXA: Hori nola liteke, mundua osatzen ari bada, eta gizakia mugatua denean?

AMAIA: Egia eman zitzaigun eta gurekin daukagu geroztik!

ARANTXA: Eman dezagun egia eman zitzaigula... ondo dago! Baina egia osorik bizi al dugu? Gure egia landare xalo bat ez al da? Ez al dugu hura osatzen saiatzeko agindua?

AMAIA: Horrela adierazirik, egiaren izaera, itxurazko dagit, baina ez dezagun ahaztu gurekin daukagula!

ARANTXA: Bestela, nola uler daiteke, bi gizatalde, egizale porrokatu, aldi berean emanik, bata bestearekin ezin adostuz bizitzea? Are gehiago, gizatalde berean bi egizale elkar ezin ikusirik ibiltzea? Gizakiak oro, ez al dira egizaleak?

IÑAKI: (Jonengana begirada bideratuz). Jon, esateko-rik ez al daukazu? Ixilik zaudel! Zergatik?

JON: Zuen kezka horiek, nireak egiten ditut. Are gehiago, kezka berri bat plazaratuko nuke.

IÑAKI: Duzun kezkak ixilik edukitzera eraman bazaitu, ixuri ezazu!

JON: (Eserlekutik jaikiaz) Gelan sartze beretik, gaisutsu batez, irmo mintzatu zarete. Zer dela eta sortu zaizue eztabaida hori? Berri mingarriren bat jaso al duzue?

IÑAKI: (Entzulegoarena bihurtuz sentimentu handiz) Bihotza zulatu digute! Bihotz jario gaude!

AMAIA: Berri okerreren bat jaso duzue orduan?

IÑAKI: Ez dakigu okerrerako edo zuzenerako bidea hartuko duen, baina, baretasuna aztoratu digute.

ARANTXA: Ustez ondo jokatu, eta erantzunez zitalkeria batjaso dugu!

JON: Noren erantzuna duzue? Zertaz?

ARANTXA: Gertakizun hau gauzatu zenetik egun gutxi igaro dira. Ezaguna zaizue, noski. Gure Herriko zenbat gaztek euskal nortasuna zizelkatzeko asmoz egin dutenak nahasi gaitu. Jende multzo baten jokabidea izan da. Lekuko agintariek eskolatan, unibertsitatean, udaletan, lantegietan euskal nortasuna ezabatzeko daramaten jokabide politiko jarraitua salatzeke, karriketara elkarrekin jautsiaz egin duten protesta saioak, alegia. Agintariek, hori ikusirik, sutan, manifestariak makilapean hartzeke agindua eman zieten ordena gordetzeke kargua duten indar ofizialei. Azken hauek, bistan da, agindua bete egin dute.

(Amaia kontakizunarekin arduraturik ageri da)

IÑAKI: (Esango duen hitz bakoitzari bizi karga sentitua erantsiaz). Guretzat berri tristea, benetan gogorra!

JON: Ni ere goibeldurik utzi ninduen han bizitako ikuskizunak.

ARANTXA: (Orain Iñakiri begira jarungo du) Ustekabean, karrikan topo egin genuen jende multzo ikusgarri harekin.

IÑAKI: Gogozko sinbiosi bat gertatu zen!

ARANTXA: Gazte haiei emandako makilakadak manifestarien aldean iltzatu zuten gure gogo.

IÑAKI: Orduan, berean, erabaki firmo bat hartu genuen!

ARANTXA: Agintariei idatzi gogor baten bidez gure protesta bidali genien. Gure gaitzespena historia-rako ere utzi nahi izan genuen. Deiadarra zen!

IÑAKI: Mezuak gizakiaren errespetua aldarrikatzen zuen.

JON: Ni ere, horretan, zuen multzoan sailkatzen naiz.

(Amaiari beldurra eta larridura sumatzen zaio azken lekukotasunaren ondorio)

ARANTXA: Egun, atzerriko irrati libreek ere deiadarraren berria zabaldua dute.

IÑAKI: Zaila jarri da gizarte giroa.

ARANTXA: Agintarietxakur amorratuak dirudite.

IÑAKI: Inguruko jendea irekiten jarri da.

ARANTXA: Une gogorra da!

IÑAKI: Azken albisteak, dioenez, agintarietxak gure jokatibidea zainetik mozteko edo, erabaki zentzagarri bat hartu nahi dute gurekiko.

JON: Zehatzagoko berririk ez al daukazue?  
IÑAKI: Ikastetxeko zuzendariarekin hitzordu bat eduki dugu.  
JON: Aipatu kezken funtsa hori al da?  
ARANTXA: Sua piztu duen poxpoloa da hori.  
IÑAKI: Txondarra aurrez prestaturik baitzegoen.  
JON: Eguzki errainuaren presentzia aski zela pizteko, esan nahi al duzu?  
IÑAKI: Hori bera!  
AMAIA: (Gehiago jakin gosean) Zigorrik aipatu al du?  
ARANTXA: Gaurdainokoan ez dago. Egon da ere, ez gaitu horrek goibelduko.  
AMAIA: Hala ere, ez da ezer zigorrik ez badago! (Zigorpetik atera balitzan, hats hartze zaratatsua egiten du).  
IÑAKI: Badugu arazo larriagorik!  
AMAIAZ: Beste arazo bat gehiago?  
ARANTXA: Jokabide hau herriaren onerako nola erabili da gure buruhaustea.  
JON: Gizaki jokabide guztien xedea dena, noski.  
AMAIA: Zuen idatziaz zer dio zuzendariak?  
ARANTXA: Idatzitakoaren mamia ez du aipatzen!  
IÑAKI: Aldiz, ondoko hauek aipatzen ditu: agintariak kritikatzeko nor ez garen! Gu baino izendatuagoak badirela horretarako. Zuzendariaren eta ikastetxearen fama zikindu dugula. Etabar.  
JON: (Odola bero bero dutela, irekiten daukatela, dirudi) Nola entzun diozue hori guztia? Ez al diozue ihardetsi? Zuen zintzotasuna ez al diozue gogoratu?  
ARANTXA: Alferrik da, ez dago zer eginik!  
AMAIA: (Zutituaz) Elkarrizketan konpontzen saiatu behar da.



IÑAKI: Esaldi ederra da! Teorian polita ere bada! Praktikan hutsala da, aurrez gogoak aldatzen ez badira.

AMAIA: Baina, gogoak nola aldatzen al diren, da galdera?

IÑAKI: Elkarrizketa soilaz ez behintzat!

AMAIA: Zergatik, ez?

IÑAKI: Zirkulo itxi baten barruan mugitzea litzateke hori. Ez punta eta ez ipurdi! Elkarrizketa konpromisoan garatu behar du, horrelakotzat emateko. Ikusirik zenbat hitz jario eta konpromiso urri dagoen gure artean, sinesgaitz bihurtzen ari naiz.

ARANTXA: Elkarren iritziak entzun ondoren, gainerakoak azpikoei berea, izpirik aldatu gabe, ezartzea ez da elkarrizketa. Behin eta berriz, ez al digute hori erakusten? Eta horrela agindua ez badugu onartzen, ez al digute esaten desobedientziaz, egoismoz eta haundinahiz beteta gaudela?

AMAIA: Denak ez dira horrelakoak! Elkarrizketa emankorrik ere badugu gure artean. Ez didazue ukatuko, noski!

IÑAKI: Bai, elkarrizketalarien artean ideiak, gogoak edo mentalitatea berdinak direnean, horrela izan ohi da.

JON: Baina, buru berarekin jokatuko bagenu, konpromiso beharrik gabeko elkarrizketa izango genuke.

AMAIA: Hori da lortu behar duguna: berdin pentsatzera iritsi!

ARANTXA: (Dagoen eserlekutik salto eginez) Nola? Egoera bat berdin epaitu behar dugula? Iritzi derberdinetako jokabideak onartzen ikasi behar dugu.

IÑAKI: (Sutan Amaiori itaunka) Gaineoek diotena  
besterik gabe azpikoek ontzat eman behar dutela?

AMAIA: Meta bat adierazi dut.

JON: Gizakiaren errealitatea kontuan hartuz, meta  
hori ezinezkoa da!

ARANTXA: Gizakiari askatasun dohaina aitortzen  
badiogu, meta baten aurrean egon daitezkeen bide  
desberdinen aukerak ezagutu behar dizkiogu.

IÑAKI: Ederra da meta eta bide batasunaren ametsa,  
baina, uniformismo errekerimendutik kanpo sor-  
tua denean, noski.

JON: Bai, desberdintasuna lantzea sana da. Oro ber-  
dina balitz, denok berdin pentsatuko bagenu, lan  
berberak egingo bagenitu, jolas berak praktikatu,  
gizakien zeregina ez al litzateke astunagoa? Makina  
ez al ginateke bihurtuko?

AMAIA: Baina, desberdintasuna lantzean, nonnahi  
eta beti ez al gara akats bila jardungo?

JON: Pertsonen iritzi desberdinak errespetatuz, gizar-  
tea da denok epaitu behar duguna. Inori kontuak  
eskatzeko ezik, guztion ondare diren baloreak to-  
patzeko baizik.

ARANTXA: Ados nago mezu horrekiko! Hala ere, ez  
pentsa oraingo ikusketa honekin akatsak topatuko  
ditugunik.

AMAIA: Honelako ikusketa batean, gazteok ez al du-  
gu zaharragoen, arbasoen ekintza eta jokabide oro  
mesprezatzeko arriskurik?

IÑAKI: Arrisku sendoa, gainera! Anitzetan egiten du-  
gu oker hori! Zergatik ez aitortu!

JON: Zaharrek ez al dute gazteekiko arriskuaren beste  
ertza okupatzen?

ARANTXA: (Entzun berria birretsi nahirik) Benetako egia hori da! Gazteriaren ekarpen berri oro deuseztu. Mundua osotasun bikainenera ailegatua dela aitortu. Zaharren mentalitatetik kanpo den oro baztertu eta gorrotatu. Hara zaharren jokabidea!

IÑAKI: Eurei ere, berdin esan behar diegu: oker dau dela, alegia!

JON: Garbi dago, ekintzaileak ez garela!

IÑAKI: Lehenik irizpide tinkoak behar ditugu.

ARANTXA: Ikusten ez den hartan ekintzaile izatea ezinezko da.

JON: Ekin eta ekin bezalako bide garbitzailerik ez dago ilunpean gaudenean.

ARANTXA: Baina lehen norabidea nola aukera dezakegu?

JON: Zenbaitzuek bizi osoa irizpideak tinkatzen igarota ere ez dute ekintza jokabiderik hartzen.

IÑAKI: Kulturen murgiltzean bi atalak batu daitezke.

ARANTXA: Egia da kultura dela txirotasun oro menperatzeko erremediorik onena.

JON: Edozein kultura adierazpenek ez du beste gabe horrenik.

IÑAKI: Herri kultura behar dugu!

AMAIA: (Harriturik) Herri kultura ez denik ba al da?

ARANTXA: Gaurdainokoa besterik ez dugu ezagutu gure inguruan.

AMAIA: Berrizaleen propaganda usaia du horrek!

IÑAKI: Propaganda bezala onartua bada, seinale egia printzaren bat baduela.

ARANTXA: Morkotsa kenduz, alea jaso dezagun.

JON: Gizartea, osoki zuzen den bidean sartu behar dugu.

AMAIA: Behin ere emango al da gizarte osoarentzat eta luzerako zuzena izango den jokabiderik? Alferrikako ametsa ez al da, hainbeste gizaldiren jarraibidea ikusirik, idealean pentsatzea?

ARANTXA: Galdera honen ihardespentak, bizitzaren norabidea erabat alda lezake.

(Ixilune labur bat dago)

JON: Historian zehar gertaturikoa kontuan izan behar dugu, noski, baina ez gara berarekin txoratuta gelditu behar.

ARANTXA: Ez horixe! Egunerokoan hankak itsatsirik, ideala beti aurrean eduki behar dugu.

AMAIA: Ez al da ezinezko oreka bat proposatzen?

IÑAKI: Zaila behintzat, bai!

JON: Errealitate honek garbi agertzen digu bizitzak daukan dinamika susmagaitza.

ARANTXA: Mugimendu gabeko bizitza, ez al da bizitzaren ukoa? Heriotzaren sinonimo ez al da kontserbadurismo jarrera?

AMAIA: Jaio berri denari, ordea, ezin zaio eskatu hoge urtekoaren urratsak eman ditzan!

IÑAKI: Ez, noski! Oinez ikasi berria, lasterka hasi orduko, lehenengo oztopoarekin lurrera doa.

JON: Dinamikak neurtua izan behar du, adin eta egoera bakoitzarentzat berezia.

ARANTXA: Gizaki bakoitzak urrats jakin bat duen bezala, gizarte bereziak ere berea topatu behar du.

JON: Borrokan jarrai, geldirik ez egon, gure goiburua izan behar da.

(Denek ixilune bat gordetzen dute)

AMAIA: (Urduri itxuran) Orduak aurrera doaz. Ordu honetan debekaturik daukagu bilera mota hau...

IÑAKI: Joan nahi duzula?

ARANTXA: (Iñakiri errieta gisa) Inor ezin dezakegu derrigorrez hemen lotu. Norberak kontzientzian erabaki dezala!

AMAIA: Ondo lo egin! (Eta badoa)

(Gelditu direnen artean beste ixilune bat dago.  
Jonek hautsiko du altxatuz)

JON: Kontzientzia saildua! Noiz arte norberarentzat ezetzik estalia izan behar da? Ez al da jabetu bizi dugun egoera anormal honetaz?

IÑAKI: Aurrean ez daukagunean ez dezagun epaitu!

ARANTXA: Haren portaerak ez digu hainbat axolik, baina...

JON: Jokaera soil bat bai latza, huts! Gure gizartean, ordea, asko dira, arriskuan sentitzean, planto egiten dutenak. Eta ez dakit zer silogismoz, baina, haien jarrera gezalak oro, ixiltasuna eginaz estaltzen dira.

ARANTXA: Bizitzan egoera ona lortua dutenak, berriz, ez dira konprometitzen. Inguruko enbarrak ez ditu gogaitzen. Justifikaziorik ere ohi dute: horrelakoak badira, aurrez ondo jokatu ez dutelako da, edo ez jakinak direlako. Eta beste mila pretesto aipatzen dute.

IÑAKI: Epaiketa horietan arrazoi mordo bat ageri da, noski.

ARANTXA: Askoren arlotetasuna salatzean arrazoi dute. Baina, arazoaren aurrean hartzen duten jarreran, ez!

IÑAKI: Ados naiz aitortzeko, arlote asko gizarte egituren errukarri direla.

JON: Gizarte egiturak humanizatzea, gizaki denon lanbidea da.

ARANTXA: Horretarako, borroka adoretzuki iraukorra behar da.

JON: Beti erne, sendo portatu.

IÑAKI: Pagoa bezain gogo trinkoa eraiki.

ARANTXA: Adimen argi eta lisoa.

IÑAKI: Balioen sorta ederra ehundu duzue, baina, non hori elkaturik aurkitu?

JON: Gizaki hazia ona denean beti da boteretsua. Ezustea ematen al digu!

ARANTXA: Eta gizaki akatsak, zer?

JON: Gizarte indibidualistaren emaitza dira.

IÑAKI: Sozialitate kontzientziak paradisia ekarriko al digu?

JON: Gizaki berri bat umotuko digu!

ARANTXA: Gizakiaren garapen osoa lortu al dezakegu?

JON: Urrats bat gehiago osotasunerantz, gutxi al da? Badira osotasuna ezetzean, daukatenarekin konformatzen direnak. Pretesto ederra da, baina ez gaitzen izan leloak.

IÑAKI: Denek ez dute heroismo genetiko berbera.

JON: (Haserreturikentzun duenagatik) Okerra horretan egin ohi dugu, berehala heroismoaren beharra ikustean, alegia.

ARANTXA: Norberaren existentzia ulertu duenarentzat, ahala duena egiteko, heroismo beharrik ez dago!

JON: Baina, nola konprenitu arazi behar diezu inguruko denei bizitzak dauka zentzu sakonena?

IÑAKI: Uste al duzu ez dutela ulertzen?

ARANTXA: Gaizki ulertua izan behar da. Bestela baltz, ezin lezakete bizitza osoa lozorroan igaro.

IÑAKI: Gizaki denek ez daukate jokaera modu bera.

ARANTXA: Ez, noski, jokaera mota asko dago. Baina, gogoz graduazio berekoak gara.

JON: (Deklamatuz) Ez, ez dut ulertzen, gogo bereko bi, nola aurkari izan daitezkeen, gogoari axolako zaion gauza berean.

IÑAKI: Gizakiaren misterioak!

JON: Horrelako adierazpenik ez zait gogoko!

IÑAKI: Ahal baduzu idoro hobea eta laster onartuko dizugu.

ARANTXA: Jakintzaz arrazoitu nahiko du.

JON: Izan ere kondaira gehiegi erabili dugu, eta aldiz, zientzia gutxi.

IÑAKI: Zientzia ere mugatua da.

JON: Gizakiaren mugak, bereak ere dira, baina, gizakiaren ahalak nork neurtu litzazke?

ARANTXA: Aberatsa bezain mugatua da gizakia.

JON: Eskapismoa babesten ote duzuen beldur naiz.

IÑAKI: Eskarmentuaren iritzia jaurti dut.

JON: Gizakiaren mugatasunez ez dezagun mitorik eraiki, progresoa maite badugu.

ARANTXA: Progreso mitorik ez dezagun erabili, gizakia maite badugu.

IÑAKI: Ziur nago, aipatzen ari garen gaian, desira berdinak dauzkagula nahiz eta azentuak kontzeptu desberdinetan ezarri.

ARANTXA: Ona, ederra, zuzena, parekatzaile, maite ditugu.

JON: Baina, horretarako bidea indibidualki, bakoitzarena bezala egitea aukeratzen badugu, gizakien esentziaren aurkakora joango gara.

ARANTXA: Mugatasunaren atributoa ere hor dago.

IÑAKI: Gizakiaren osagai soziala garrantzi haundikoa da.

JON: Asko ahaztu izan den dimentsioa, noski.

### III. AGERRALDIA

(Arantxa, Iñaki eta Jon, gehi Begiralea)

Begiraleak kanpotik jokagelako atea joko du. Arantxa eta Iñaki, bat-batean zutituko dira.

IÑAKI: (Lagunei) Begiralea izango da!

BESTE BIAK: Aurrera!

BEGIRALEA: (Haserre) Nola zaudete ordu honetan hemen? Ez al dakizue debekatuta dagoela! Lege ez al duzue aintzakotzat hartu behar.

JON: Gatazka dugu. Kezkaturik gaude.

BEGIRALEA: Legea ala zuen gogo?

ARANTXA: Hori ez da gu kezkatzen gaituen arazoa. Legea betetzeko prest gaude.

BEGIRALEA: Orduan, zertan zaudete hemen legearen aurka?

ARANTXA: Berori entzuna da: inkomodo astunean ez dutela behartzen lege positiboak...

BEGIRALEA: Zuen kasuahortan dagoela? Subjetibismoa da hori! Nonnahi eta nolanahi inkomodo astuna aurkitzen duzue.



JON: Gure kasuan ez al zaio hala denik iruditzen?

BEGIRALEA: Nik ez nuke legerik hautsiko.

JON: Ez digu axolik berorek egingo zuena ezagutzeak, epaiketa objetibo bat bilatzen dugu.

BEGRALEA: Legeak ez daude txantxetarako eginak.

ARANTXA: Duintasunpean dagoen legea behar dugu.

BEGIRALEA: Legeak oro horrela sortu ohi dira.

JON: Orduan garbi dago duintasuna galtzean soberan daudela.

BEGIRALEA: (Lasai jardunez eta ahotsaren doinua aldatuz). Mesedez, erretira zaitetze! Berriz ez dadila horrelakorik gertatu! (Berehala hiru gazteak kanpora doaz)

#### IV. AGERRALDIA

Begiralea eta Zuzendaria. Begiralea, urduri xamar, gelan zutik, alde batera eta bestera dabil.

BEGIRALEA: Begiralea, deitzen didate! Begiralea, alajaina! Nortasun bat ez al dut? Nortasuna baino garrantzizkoagoa al da bizimodua? Ez al da izango! Nik neuk ere gorroto dut daramadan bizimodua. Nortasuna bizimoduarekin nahasten bada berriz, nire nortasuna gorrotatzen dut. (Gogor) Ez, ez! Bizimoduaren morroi ez naiz! Nortasuna maite dut! Baina, bizimoduak ez al du nortasuna itotzen? Zergatik bizimodu hau onartu dut? Beti menderatua, kezkatua bizi naiz! Bizi beharrak hiltzen nau. Nortasuna erreus bihurtzen dit.

ZUZENDARIA (Atetik): Zu al zinen hor?

BEGIRALEA: Ez nintzen ni, beste batzuk ziren!

ZUZENDARIA: Nola ez zinela zu, bakarrik ez al zaudede?

BEGIRALEA: Ni naiz, bakarrik nago!

ZUZENDARIA: Orduan, zer ari zarahemen?

BEGIRALEA: Nire aurretik beste batzuk zeuden hemen. Ni, oraintxe etorri naiz!

ZUZENDAIA: (Harrituta) Nola beste batzuk hemen, ordu honetan?

BEGIRALEA: Bai, beste hiru!

ZUZENDAIA: Nortzuk ziren?

BEGIRALEA: Bi idazleak eta Jon

ZUZENDAIA: Jon esan duzu? Beste biek ez al genuen nahikoa?

BEGIRALEA: Bera gogorren agertu da, kezkatuta zegoen!

ZUZENDARIA: (Susmoz betetako ahots batez) Lehenagotik ere banuen zerbaiten aditzera: ikusten, ikusten!

BEGIRALEA: Mutil argia da, baina, esperientzia falta du...

ZUZENDARIA: Agintarien planak betetzen badira, bizia zer den frogatuko diete.

BEGIRALEA: Gogor al daude?

ZUZENDARIA: Azken elkarrizketan oso gogor azaldu dira: mugimendu hau, zainetik ebaki behar dugula, agintaritzaren pisua argi jarri, espiritu sutsudunak, kanpora bota, eta... auskalo zer gehiago aipatu dituzten.

BEGIRALEA: Hau da konpromisoa! Hau lana!

ZUZENDARIA: Horrelakoetan, gu gara beti galtzaille! Goikoekin ondo gelditzean, behekoekin gaizki gara. Ez ote dago bi muturrak batzerik?

BEGIRALEA: Zer nahiago nuke nik! Baina, nola daiteke hori?

ZUZENDARIA: Zerbait pentsatuta daukat nik!

BEGIRALEA: (Hitzak mimikaz laguntzen dituelarik)

Bi aldeak batzeko moduko zubia sortu ahal baliteke!

ZUZENDARIA: Gazteak makurtauaraztea litzateke biderik errazena!

BEGIRALEA: Ez nuke konpromiso hori hartu nahiko.

ZUZENDARIA: Izerdi gabe lortuko dut.

BEGIRALEA: Ez urezkoa, odolezkoa ere ixuri behar-ko duzu.

ZUZENDARIA: Horretarako, elkarrizketa paratuko dut.

BEGIRALEA: Nortzuren artean?

ZUZENDARIA: Gazteen eta agintarien artean, noski!

BEGIRALEA: Agintariak ez dira hauei entzutera makurtuko.

ZUZENDARIA: Aurrez, nire plangintzaren berri emango diet.

BEGIRALEA: Gazteekin parekatzen dituzula epaituko dute.

ZUZENDARIA: Ohoreturik irtengo dira.

BEGIRALEA: Nola daiteke hori?

ZUZENDARIA: Agintarietara agertzeko aginduko diegu gazteei. Haiei modu egokian hitz egiteko. Apaltasunez egindakoaren berri emateko. Inor ez zutela mindu nahi, esateko.

BEGIRALEA: Hori guztia zentzuduna deritzait.

ZUZENDARIA: Agintariei berriz, damututa daudela, huts egitea aitortzen dutela, bakean eta mendean

jarrai nahi dutela, eta hau adierazteko elkarrizketa eskatzen dutela.

BEGIRALEA(Pozez beterik) Horrela aske, trabarik gabe, denekin ondo amaituko dugu!

ZUZENDARIA: Bai, konpromisotik libre!

BEGIRALEA: (Eskua gibelera eramanaz) Gibelego minaz nengoen, eta orain zeharo osatu naiz.

ZUZENDARIA: (Hizkera harropuz) Gure egitekoa zer da ba, bakea sortzea baizik!

BEGIRALEA: (Pentsatuz eta sentituz) Bakea eta maitasuna behar ditugu munduan.

ZUZENDARIA: Ez dio axolik nola, baina, bakea eta maitasuna dakartzaten ekintzat, txalogarriak dira beti!

BEGIRALEA: Bakea sortzea, ez da neketsua, noski?

ZUZENDARIA: Ezta arina ere.

BEGIRALEA: Une honetan dena deritzait erraza.

ZUZENDARIA: Goikoen esanetara, behekoak ekar ahal izanez gero, erraza da. Bien arteko lotura egingo duen lokarria landu behar denean, zaila da.

BEGIRALEA: Gaurko gizartean Zuzendari agintea betetzeko zerbait berezia behar da.

ZUZENDARIA: (Hori berari dagokiola sinistuta) Egia, kargu pisuak dira hauek! Ondo eramateko burutsu izan eta diplomazia handiz jokatu behar da.

BEGIRALEA: Nik dudan kargutik kalkulatzen dut, Zuzendari batena, zer pisutakoa izan behar duen.

ZUZENDARIA: Zu bezalako begirale zintzoak gutxi aurkitu ohi dira.

BEGIRALEA: Eskerrik asko, egindako laudorio horientatik

ZUZENDARIA: Ez da gurekoiak garelako, baina, pertsona eta gauzei daukaten izena jarri behar zaie.

BEGIRALEA: Arrazoi du! Argi eta garbi agertu beharrezkoak dira.

ZUZENDARIA: Toki ugaritan daukaten agintea pratikatu dut. Mota denetako begiraleak ezagutu ditut, baina, hain zintzo nire aginduak betetzera prestatzen den gutxi aurkitu izan dut.

BEGIRALEA: Hautzarotik dakart obeditzeko erraztasuna.

ZUZENDARIA: Dohain hori gaurko gazteriarri itsastan ahalegindu zaitez!

BEGIRALEA: Jokabide egokiaren diploma, niretzat zen beti! Lagunek santu nintzela zioten.

ZUZENDARIA: Obedientzia zentzumena galdu da gure gizartean.

BEGIRALEA: Zergatik ote?

ZUZENDARIA: Ez dakit, baina, ez dut inon aurkitzen. (Etsimen keinu batekin) Ez gaitezen problematiko jarri, gure bizitzako arazo sendoenetako bati erantzuna aurkitu diogunean.

BEGIRALEA: Atsedena behar dugu. Nekatuak gaude. Ez al da horrela?

ZUZENDARIA: Bai, gorputza hautsia daukat. Eta adimena zer esanik ez! Bihar beste egun bat izango da bai, eta bizi denak zer egina izango du!

BEGIRALEA: Goazen! (Buruarekin keinu eginaz. Badoaz).

OIHALA

## BIGARREN EKITALDIA

### I. AGERRALDIA

Lehen ekitaldiko jokaleku bera da. Orain, Arantxa, Iñaki eta Jon dira jokalekuan ageri. Eserita daude.

ARANTXA: Agintarien erabakiaren berririk ez dugu oraindaino. Baina, ez dio axolik. Zuzendariaren plangintzari ezezkoa eman genion. Gaur une hartan emandako ezetz hura geroz eta hobea aurkitzen dut.

IÑAKI: Egizale ginen eta kontzientziako erantzun bat izan zen gure idatzi hura. Eta ondo jokatu genuenaren kontzientzia ukanik, nola sinesten ez duguna baieztatu genezake?

JON: Mundua jausten bada ere, ez! Hori ezin daiteke onartu!

IÑAKI: Gure gizarteari lagundu nahi badiogu, beti ausardiz eta zuzentasunez jokatu behar dugu. Kosta ahala kosta!

JON: Jokaera oro gizartea hobetzeko izan dadila!

ARANTXA: Bizia, jokatzeko jaso dugu, orduan, arriskatu egin behar dugu.

IÑAKI: Bakea eta maitasuna nahi zituela. Guk ez al ditugu nahi?

JON: Mundua aurkitu izan dugunean errespetatzea, bakea zerbitzatzea al da? Bakeak dinamika bat ez al dauka?

ARANTXA: Bakea, emaitza da. Eta izadiak erakusten digunez, fruitua eman dezan, aurrez zuhaitzak hazi egin behar du. Ondorioz, hosto eta lore, eta azkenik fruituak izango ditu.

JON: Nor da lurtean hazia jarri orduko, fruitu bila doan nekazaria?

IÑAKI: Zeinek eskatzen dio fruitua landare jaio berriari? Eta fruiturik ez daukalako, ebakiaz surtara botatzen du!

ARANTXA: Hori egingo lukeena, zoro ezdeusa litzateke.

JON: Bakea bai, zer nahiago!

ARANTXA: Baina, bake hazirik erein al da gure gizartean?

IÑAKI: Noizbait ereina izan bada, nork ureztatzen du? Nork jorratzen du?

ARANTXA: Aurkitzen al da bake hazirik?

JON: Bake printza ederrak badira! Gizaki zuzenak ere ageri dira!

ARANTXA: Betikoa! Baina, gizartearen muintara sartzen bagara, zer? Zuzentasuna, egia, maitasuna eta askatasuna bakearen oinarri direnez, zer nolako neurria daukate gure gizartean? Are gehiago, zuzentasuna ardura al da?

IÑAKI: Eguneroko predikua da: bakoitzari berea eman behar zaiola.

ARANTXA: (Ironiaz) Formula salbatzailea! (Eta serio arituz) Baina, izate mailan ageri al da?

JON: Eguneroko bizitzan, gizaki zuzenak ere presondegian sartzen ikusten ditugu, areago doana, zuzentasunaren izenean!

ARANTXA: Zenbatek protesta egin dute?

JON: Izerdi hotzaren erantzuna. Harresi zekena

ARANTXA: (Zutiturik otoika) Nor da gizakia beste bati bizia kentzeko? Nor da izadiak oparitu dion

askatasuna ebakitzeko? (Aurrerantzean ere zutik jarraituko du)

IÑAKI: Ezin da uko hala ere, justiziaren izenean egingdako hainbat ekintza eder badela!

JON: Erresto bat beti daiteke salbu!

ARANTXA: Gizartean, gizakien elkargo bezala ere, zuzentasun egarria betikorra da.

JON: Estructura saldoan ustelkeria asko bada!

IÑAKI: Giza-zuzentasunik ez balitz, mundua birrinduko litzateke.

JON: Horren osagai, zigor jakak milaka behar dira.

IÑAKI: Jatorrizko legea ez al da argia?

ARANTXA: Zeharo ukatzen duten juristak badira.

JON: Eskubideak dinamikoak izan behar dira.

ARANTXA: Mundua beti bilakatzen ari denez, hala izan behar du.

JON: Gizadiaren lehen estadioan, lanaren berezko zatiketa besterik ez zegonean, alegia, eskubide eta betebeharren arteko bereizketarik ez omen zegoen

IÑAKI: Baieztafen horrek funtsik ba al du?

JON: Aldeko serioak dauzka.

ARANTXA: Muga gaitzen gaurkora eta gure herrira.

JON: Eskubideak erabiliaz, konformismo giroaren aurka joan direlako kondenatuak badira.

IÑAKI: Kontuan behar dugu, gaurko gaztediak zuzentasun sentsibilitatea erneago daukala.

ARANTXA: Agintariak, giroan gaindiz irteten dena, ez dute begiko.

JON: Orduan, zuzentasunez jokatzeko, agintariei komeniko zaiena egitea al da?

IÑAKI: Hori ezin onar litekeela, garbi dago, baina, kategoria eta mentalitate bera ez dauzkagu.



JON: Ez, gizaldi bakoitzak, bere ahalbide mugatuak dauzka.

ARANTXA: Beti hesi bera: bi mentalitate bata-bestearen aurka!

IÑAKI: Gizaldi guztien historiak gauza bera erakusten digu.

JON: Eta beste bat: Egundaino gizadiari gehien aporatu dioten gizakiak, garaian garaiko agintariek gairi tratatu izan zituztela.

IÑAKI: Esaerak ondo dio: Bere herrian inor ez dela igarle! Ezz eta bere garaian ere, gehituko nuke nik.

JON: Zer axola dio gizartean fama izan ala ez!

IÑAKI: Mundu honetan gizakiak daukan ohore kuttu-  
nena da.

JON: Eta bizitzak, behar dituela usai gozoak?

ARANTXA: Gizartean dugun kapa sakonena ere bada.

JON: Horrek ez al du gizakia derrigortzen, behartzen?

ARANTXA: Ezpairik ez, determinismo bat sortzen duela.

IÑAKI: Zer dela eta?

ARANTXA: Askatasuna dugu dohainetan gailurren. Eginkizun orduan norberaren aukera, alegia!

IÑAKI: Eta zer, gizarteko famapean askatasunik ez dagoela?

ARANTXA: Laborategian litekeena da, baina, bizitzaren sena besterik izan ohi da.

JON: Uztarpetasun ankerraren eragilea da.

IÑAKI: Ez duzu sustraitik galtzerik itxarongo?

JON: Horretarako gizartearen zimenduak aldatu behar harko lirarteke.

ARANTXA: Gizadiaren bizi erritmoa aldatu.

IÑAKI: Nor egin daiteke enpresa horren kargu?

JON: Iraultzaileak deitzen dituzte euren buruak.

IÑAKI: Beraiek gure jarraibide?

JON: Haien ausardiak berekoikeria oro baztertzen du.

IÑAKI: Iraultzaile hitza, gizaki gaiztoaren sinonimo ez al da?

ARANTXA: Ezin ukatu burugaldia izendatzeko ere erabiltzen dela. Baina, gurekerian gogaitzen gaituen oro izendatzeko ere, ez al darabilgu?

IÑAKI: Ondorioz zer, gaurko iraultzaileak santu dirrela?

JON: Nazaretoko Jesus ere garaiko agintariak iraultzailetzat kondenatu zuten.

IÑAKI: Kristautasuna iraultza izan zela?

JON: Sorreran hala izan zen.

ARANTXA: Zalantzarik ez, iraultzaile zela, konformismoa aitortzen zutenentzat.

JON: Gaur hala ez bada, konformismoa onartu duelaren seinalea.

IÑAKI: Lehenbiziko trabak gainditzean hala izan zela dirudi.

JON: Maisuaren espiritua non gelditua da?

ARANTXA: Borroka txinparta, esentziazko aitortu zuen.

IÑAKI: Badira oraino dutenak. Izan ere, edozein gaitan bezala honetan ere, esistentzia kontsideratzeak mugarik gabeko mailak agertzen dizkigu.

JON: Nik egitura planoan zaharkitua aurkitzen dut.

ARANTXA: Motorrik gabeko itsasontzia.

IÑAKI: Gizakia osatzeko paregabea da. Bestela, begira historian zehar izan duen gidaritza. Ekaitz eta mendebal guztien artetik pertsona salbatu du.

JON: Gizakiari, naturaz dauken ausardia ez al dio urritzen?

ARANTXA: Abstrakziori lotuaz, ihesa ez al da?

IÑAKI: Haztatzen ez den oro irreala dela?

JON: Gure ahuleziak estaltzeko aitzaki ederra!

ARANTXA: Nork muga dezake gizakiaren dohain sortzaile oro? Zeren izenean?

IÑAKI: Gizakiaren egarria iraultzaz agortu behar al da, orduan?

JON: Balora dezagun adorea, kemena...!

## II. AGERRALDIA

(Lehendik jokalekuan zeudenak eta Zuzendaria. Zuzendariak kanpotik atea jotzearekin abiatzen da agerraldi berria).

ARANTXA: Baiiii...!

ZUZENDARIA: (Barrura sartuz) Gabon jaunak!

ARANTXA: Eta anderea!

BESTEAK: Baita berori ere! (Iñaki eta Jon zutitu egin dira)

ZUZENDARIA: Zuekin egon beharra nuen.

ARANTXA: Prest entzungo diogu.

ZUZENDARIA: Litekeena da, bateren bat harriturik aurkitzea, zuen berri nola nekien asmatu ezinik...?

JON: Halaxe da ba.

ZUZENDARIA: Aurrez zaindaria igorri dut, zuen berri jakin zezan.

IÑAKI: Ordu honetan debekaturik dugula, esan behar al digu?

ZUZENDARIA: Orain horrek ez dio axolik. Ez zen horregatik.

JON: Epaiketa jatorra da, bazen ordua.

ZUZENDARIA: Arloteak egiten al ditugu bada?

JON: Doinu berekoak.

ARANTXA: Txori abeslariak balira, entzulerik ez lukete.

ZUZENDARIA: Nola da doinu hori?

JON: Kontu eske etorri ohi dira. Epaile. Behin ere laguntza eskaintzarik, ezda izaten!

ARANTXA: Gazteriarri bideak agertzea noren misioa da?

ZUZENDARIA: (Mindu xamar) Egun osoa zuen zerbitzuan igaro ohi dugu, eta hori ezin diguzue esan.

ARANTXA; (Barrua, sutsuegi dauka ixiltzeko) Zuzendariaren eginkizuna gelara doakionari errezeta eskaintzea al da?

ZUZENDARIA: Hara, gaztaroko su berria! Gauza askok ez du erantzunik. Izan ere, gustuak beti desberdinak izango dira.

JON: Gizon estandarra zertarako dugu?

ZUZENDARIA: Hainbat buruhauste ematen digun arazoa!

JON: Zenbait giza molde betikor aitortzearen errua da hori.

ZUZENDARIA: (Ahotsa berrituz) Orain beste esan behar batera igaroko naiz.

BESTEAK: (Denak bat-batean) Adieraz beza!

ZUZENDARIA: Mezu triste bat jaso dut. Zuei horren berri eman beharrak ere min egiten dit. (Isilunea) Bihartik, etxe honen babesean, zuentzat ez

da lekurik izango. Kanporatuak zaudete oraindik. (Ixilunea) Orain, zuek agurtzea dut eginbehar, baina, aurrez lagun bat hemen daukazuela gogoratu nahi dizuet. (Banan-banan eskua emango die agur esanez; eta besterik gabe kanpora irteten da).

(Gelan gelditu diren hiruek une bat lurrera so igaro dute. Azkenean, Jon-ek ixiltasuna hautsiko du)

JON: Agur bai, agur!

BESTEAK: (Irteerara begira) Agur!

JON: (Publikoarengana aurreratuz) Borroka ala ihes!

Nik borroka aukeratu dut. Mundu honetan garaile kontsideratu ala ez, axolik ezt dit. Bakoitzak dauzkan baloreak herriari eskaini behar dizkio. Horretarako, bizia dugun hainean borrokan jarraitu behar dugu. Konformismoa ez zait gogoko. Gizakiak bakea maite du. Lasaitasuna desiratzen du. Baina, zuzentasunean oinarritua izan behar du. Edozein bakek ez du balio. Egiazaleak izanez, kontzientzian fintasunez jokatzuz, egia osatuko dugu.

ARANTXA: Triste ala alai nagoen? Triste nortasuna osatzen lagundu didan kabi bizitza utzi behar dudalako. Alai, ongi ez irtete bera, dugun dinamismoaren emaitza delako. Bizi egin behar gara. Gure ezbeharrak, ez al dira bada bizitzaren sua indartuko duten illatiak? Bizidun oro maite dut. Arnasa duen oro egoki zait.

IÑAKI: Ederrak dira benetan zuen sentimentuak! Beti horrela bizi zaitezte. Zer nahiago nik ere. Baina, ezin dut. Bihotz gainean zama neketsu bat sentitzen dut. Kezka garratz batek inguratzen nau.

JON: Heriotzak harrapatu arte sutsu behar dugu. Fin eta kementsu jokatzuz, dugun ahalmena mundua osatzeko erabili behar dugu.

IÑAKI: Mundu plazara goazen unetik beldur naiz oro etsai ez ote zaigun bihurtuko. Giroak ez ote gaituen azpiratuko.

ARANTXA: Bai, geroz eta bizialdi gogorragoa izango dugu. Arazo sendoagoak. Izan ere, gertakizunek kate baten mailak dirudite. Baina esku artean dugun arazoari aurpegia ausardiz eman diogularik, aurrerantzean ere, izango dugu kemenik.

IÑAKI: Aurretik ere badira, lehenengo borroka aldian sendo jokatu ondoren bigarren erasoaldirako kuraia galdu izan dutenak. Arrisku horrek kezkatu egiten nau...

JON: Egoera hipotetikoaren aurrean problematiko jartzen ari gara. Hori ezin dugu onartu!

IÑAKI: Orain balizko den oro, gero errealitate!

JON: (Mokoka ari diren oilaskoak dirudite) Balizkoan menperatua ageri dena errealitatean berdin izango dela, ondoriotzea logikoa baita.

ARANTXA: Aurrez plangintza egitea ongi deritzait.

JON: Fantasmak, heroe direnentzat utz ditzagun.

ARANTXA: Ohartunki itxu denak aurrerapen gutxi ekarriko du.

IÑAKI: Bihotza harkaitz, adimena tximist!

JON: Otutze orduan, trabarik ez da behar.

IÑAKI: Buruan ez, baina gauzetan badira, eta zer?

JON: Gizaki anitz irudikinak galtzen du.

ARANTXA: Ausardiak hesiak ere gainditzen ditu.

JON: Norbera gara lehen harresia. (Une honetan Amaia sartzen da jokalekuan)

AMAIA: (Beldurti eta kezkatuta) Albiste txaren bat al duzue?

ARANTXA: Orain, irten egin behar, besterik ez!

JON: Bagoaz betirako!

AMAIA: Zuzendariaren mezuak hori al ziren?

IÑAKI: Nola dakizu?

MAIA: Hemendik irteten ikusi dudalako

IÑAKI: (Ironiko) Betebeharra kunplitzera etorri omen da!

AMAIA: Gogorra da, baina, patuak horrela agindu badu, zer egin dezakegu?

JON: (Tximista bezala pizten da) Jarrai, jarrai, zure burutazioekin!

AMAIA: (Minduta) Hori errealitatea da, eta guk on-tzat eman behar.

JON: (Haserre) Barkatu, baina, une honetan ez eait gogoko inoren negarrik. (Segidan kanpora irtengo da)

(Barnean gelditu diren beste hiruak une batez ixilik egon ondoren, Arantxak eta Iñakik elkar agurtzen dute)

AMAIA: Agur! (Eta orain, bakarrik gelditu dela jabe-tzean, izan ere, dena hain laster igaro da, –eta ihar-dukitzeko betarik ere ez du izan– hitz jario bihurtzen da)

Gaur, nire aintzinako lagunak badoaz hemendik! Zuzendaria hemendik irteten ikusi dudanean, be-rehala zerbaiten susmo txarrak hartu nau. Baina, ez al du horrelakorik egingo, esan diot nire bururari. Badakit fin jokutzen ari direla, nahiz eta tronpatzen diren. (Gogoetatzen jarriko bakira une batez) Be-

rriz gogoratuta ere ez daude gehiagoz hemen. Beste egun batez, haiekin hemen bertan elkartu nintzen. Beldurra sentitu eta alde egin nuen. Ez nintzen lain haien berotasunari ihardesteko. Harrez gerozkorik ez dut ezagutzen. Orain ikasi berri dudana da on-dorio txarra ekarri diedala. Zintzotasana erakutsi didate beti. Benetan maite ditut. Nire bihotzean lekutxo bat hartua dute. Nik, orain zer egin dezaket haien alde? Nire beharrik ba ote dute? Nik, Jainkoagan sisnismena dut. Haiek ez dakit horrenik duten. Nik, haien alde zerbait egin nahi dut. Baina, zer? (Pentsatzen dago une batez) Otoitz egingo dut. *Aita gure* bat esango dut. (Bi eskuak bilduta otoitz jarreran egongo da. Aitaren eginez amaituko du. Berehala aurrerantza egiten du). Norbait dator! Inork aurkitzea ez zait gogoko. (Alde batera eta bestera begiratzen du). Hortik datorrela dirudi! (Eskubi aldera apuntatzen du) Hemendik irtengo naiz! (Ezkerretik irteten da)

### III. AGERRALDIA

(Zuzendaria eta Zaindaria)

(Eskubiko atetik sartzen dira. Oso serio eta problematiko)

ZUZENDARIA: Orain, herrian zehar giro astuna izango dugu aurka. Herri osoa hemengo gertakariez hitz egiten ari da. Gure jokabidea beldurtizat epaitzen duenik ere anitz bada.

BEGIRALEA: Bi ezpataren artean hartuak gaude. Baina, gure aginteak honetarako ere dira. Beste modu



batez jokatu izan bagenu ogibidea galduko genuen.

Baina horrretara heltzea ez zaigu inori eskatzen.

ZUZENDARIA: Ustez erabakita utzi genuen, baina,

beraiek kausatu zuten gure plangintzaren porrota.

BEGIRALEA: Herriak horren berririk ez baitu.

ZUZENDARIA: Gizakien epaiak honelakoak izan ohi dira.

BEGIRALEA: Borondate onez jokatu eta harrera txarra.

ZUZENDARIA: Kritikarekin eskertzen digute.

BEGIRALEA: Ixilpeko mila bihozkada, ur hotzez estaliak dira.

ZUZENDARIA: Lurpean legamiaturik, ernemuin gori bilakatuko dira.

BEGIRALEA: Itxaropenean babestu behar.

ZUZENDARIA: Igaroaz ahantz gaitezen! Aurrera begira jarririk, nola irten gintezke une larri honetatik? Giroari zapal gaitezen libro utzi behar al diogu?

BEGIRALEA: Ez, hori inolaz ere ez! (Ahotsaren erabilerara aldatu du). Herri giroa menperatzeko zer bide dugu?

ZUZENDARIA: Agintariei laguntza eskatu behar diegu. Orain arte guk babestu ditugunez, zerbait lagunduko al gaituzte.

BEGIRALEA: Euren itzala jasoko bagenu, salbatuak aurkituko ginatke.

ZUZENDARIA: Erregutu egin behar.

BEGIRALEA: Zer laguntza mota otoiztu dezakegu?

ZUZENDARIA: Gogoetatu egin behar (Mimika bat egiten du). Agintariek behintzat ulertuko al digute!

BEGIRALEA: Gizaki legez ari badira, lagundu behar gaituzte. Bi etsai aurkari baititugu.

ZUZENDARIA: Bat esango nuke nik, baina, beste guztia elkaturik bezain indartsua da bakarra.

BEGIRALEA: Bat edo bi bezala hartuagatik berdin izango dio. Gorabehera da, etsaiak ditugula.

ZUZENDARIA: Herri giroa dugu etsai!

BEGIRALEA: Eta hori nola zapaldu?

ZUZENDARIA: Gu bezalakoak herri girorik ezin lezake menperatu.

BEGIRALEA: Zer diozu galduak garela?

ZUZENDARIA: Ez, nire iritzian irtenbiderik badugu.

BEGIRALEA Ager iezadazu lehenbailehen!:

ZUZENDARIA: Eta nik uste dut, horrela jardunez giroa ere menperatuko dugula.

BEGIRALEA: Horren bila gabiltza!

ZUZENDARIA: Aske bilakatukoi garela pentsatzea, pozgarri zait.

BEGIRALEA: Baina, nola izango da hori?

ZUZENDARIA: Pare bat urterako hemendik aldatzeko eskatuko diegu.

BEGIRALEA: (Aurpegia nabarmen tristeturik) Beste-rik ezinean, onartu egingo beharko da.

ZUZENDARIA: Ikusten dudanez ez zaizu gogoko?

BEGIRALEA: Adin honetan eta bizimodua eratuta denean, aldaketak ez dira atseginak.

ZUZENDARIA: Gainera, gazte horien aldeko jarre-  
ratzat agertu behar dugu.

BEGIRALEA: Agintariek ez digute onartuko horre-  
lako agerpenik egin dezagun.

ZUZENDARIA: Jokabide horrekin giroa lasaituko dela irakasten badiegu, onartuko digute.

BEGIRALEA: Agertzeko orduan diplomazia erabili beharko dugu.

ZUZENDARIA: Prestatzaile burutsua beharko dugu.

BEGIRALEA: Jendetasun hori duenik gure inguruan nola atxeman?

ZUZENDARIA: Nik kontrolatuko dut betetze-lan hori?

BEGIRALEA: Prestatzen has zaitez lehenbailehen.

ZUZENDARIA: Gaur bertan hasiko naiz hori egiten.

BEGIRALEA: Daukazun lan guztien gainetik hori prestatu behar duzu.

ZUZENDARIA: Ulertzen dizut! Lehenbailehen erabaki garbi bat begiztatu nahi duzu.

BEGIRALEA: Aspaldi honetan horrek zorabiatu nauka.

ZUZENDARIA: Ibaia ubidetik irtena baita.

BEGIRALEA: Itsasontziak jarrioa du.

ZUZENDARIA: Zergatik bizitza hainbeste konplikatu! Zegoen eran ongi ez al zegoen? Naturaren eritimoan ez al genbiltzan?

BEGIRALEA: Gaztea harroa da berez.

ZUZENDARIA: Aitzetik gabiltzanengan ez al daukate konfiantzarik?

BEGIRALEA: Adinak konformitatea ere ekarriko die.

ZUZENDARIA: Eta dena alferrikakoa dela pentsatzea!

BEGIRALEA: Sorturiko egoerari amaiera eman dezaiozun betirako.

ZUZENDARIA: Bai, ni ere lanera itzuli behar naiz.

BEGIRALEA: Joan zaitez!

ZUZENDARIA: Sikira, honela menderatuko bagenu arazo hau!

BEGIRALEA: Horrenbeste nahigabez lehartuta nago!

ZUZENDARIA: Banoa! (Kanpora irten da)

BEGIRALEA: (Bat-batean oso alai) Hau zoriona, kezka hauek honela itotzen badira! Gazteak? Kontuak ateratzen ikas dezatela! Mundu hau txantxetan ez da hartu behar. Bizitza bera da maixurik onena! Konformista izaten ikasiko dute, bestela eurentzat okerrago! Orain, atsegin har dezaket argi bat, piztu baitzait!

## OIHALA

### HIRUGARREN EKITALDIA

#### I. AGERRALDIA

Jokaleku berria da. Etxe pribatu bateko edozein gela izan liteke. Oihala jasotzean Jon bakar-bakarrik ageri da. Gelan alde batera eta bestea mugitzen dabil.

JON: (Oso poliki eta sakon itxura emanaz). Egun beltzak izan ziren ostatu unibertsitariotik etxera itzuli nintzeneko haiek. Hura nahaspila. Hura iskanbila. Nire etxekoek oso mentalitate itxikoak dira. Zuzenak, bai, baina legalista hutsak. Abelera hartan etxetik ihes egitea erabaki nuen. Baita egin ere. Arrazoiak banituen. Alde batetik ezin konpondua. Bestetik, nire idealak praktikara eramateko

beharrezko zitzaidan hurruntzea. Ez ezagunen ar-  
tera joatea. Giro berrira, alegia. Bestela, kontura-  
tu baino lehen, zer esango dutenen kezkak zapal-  
duko ninduen. Baina, nola ideal haiek praktikara  
eraman? Hara, sasiko bizitza zeraman talde baten  
aditza izan nuen. Gure herriari galzorian zeukan  
nortasuna itsasten laguntzen zion. Haiekin topo  
egin nuen, eta geroztik (Une horretan Begoña bere  
emaztea sartuko da gelara. Aurpegia erabat margo-  
tua darama).

BEGOÑA: Orain ere aktibataterik gabe? Harritzekoa  
da! Honela ongi konpon gaitzen nahi al duzu?  
Badakizu probetxu gabeko pertsonarik alboan ezin  
dudala jasan.

JON: Ixil zaitetz «mulier oekonomika» hori! Zuretzat  
munduan dirua beste balorerik ez dago.

BEGOÑA: Ongi dakizu ezetz! Niri emaikidazu gau-  
zak, janariak bezala jostailuak eta beste oro hutsa  
da. Kontutik bizi direnentzat beste mundu horrek  
balorea izango du, baina kontu zaleentzat da guzti  
hori.

JON: Dirua eta eskuekin ukitzen diren izakiak dira  
zure zoramena.

BEGOÑA: Zurea, berriz, ezereza, imaginarioa...

JON: Ideal oro orduan ezereza da zuretzat.

BEGOÑA: Niretzat ez dio horrek axolik. Hori bera  
ere idealismo hutsaren emaitza da.

JON: Zergatik ez duzu hala dena ikusi nahi?

BEGOÑA: Esistitzen ez denik ezin ikusi.

JON: A zer premia dagoen, gure gizartean, ideal sakon  
eta dinamikoena!

BEGOÑA: Dirua, jatekoa, aurrerapena, eta kitto!  
JON: Ontzat ematen ditut zuk izendatuak, baina...  
BEGOÑA: Baina, zer? Azkenean uko!  
JON: Horiek geroz eta hobe eta gehiago behar ditugu, noski.  
BEGOÑA: Hori horrela bada, zergatik zabilta horietatik ihes?  
JON: Horiei sostengua eta zentzua emango dizkieten idealak daude nire jokabidean helburutzat.  
BEGOÑA: Gauza horiek dauzkanak ez du beste ideal beharrik. Izatekotan ere osasuna!  
JON: Materialista hutsa zara erruz!  
BEGOÑA: Zu zeu berriz idealista! Nik dakidana da, esposatu ginenez gero, nire kontura bizi zarela.  
JON: Herria zerbitzatzen nabil, eta denona da betebeharr hori.  
BEGOÑA: Zu zeu behintzat nire kontura bizi zarela esango dut berriro.  
JON: Ni languntzean, zeharka, baina, zerbitzatzen duzu zuk zeuk ere.  
BEGOÑA: Horrek ez nau pozten.  
JON: (Etsipen keinu bat eginez) Aspaldian hainbeste borroka dabilgu gauza hauekin, eta oraino ez zaizu bururik idekitzen!  
BEGOÑA: Zure egoerak nazka dagit!  
JON: Ez al dakizu ekintzetatik hautsia natorrela?  
BEGOÑA: Eta zer, laguntza bat ukan arren nirekin esposatu al zinen?  
JON: Berbera! Zu zeu ere, herri honetako alaba zarenenez, herria osatzeko ekintzan parte hartu beharrean zaude!

BEGOÑA: Lerdo hori! Berriz ez dut horrelako baieztapenik zuregandik entzun nahi.

JON: Zu zeu zara ixildu behar duena, hoin zurekoi zarelako!

BEGOÑA: (Mindurik) Losagabea! Oraindik nirekoi deitzen nauzu.

JON: Bai, eta berriz ere deituko zaitut, aldatzen ez bazara.

BEGOÑA: Nola ez bada, eta aurrerantzean ere, hala pentsatzen jarraituko dut.

JON: Norekin zabilzala uste duzu? Hor konpon! (Kanporako doa. Isilune bat egiten da)

BEGOÑA: Igaroko zaio! Gaur nire honek du erru guztia! Ni neu hasi banatzaio kontuak eskatzen. Baina, arrazoidun ni neu naizela uste dut. Bizimodu honetaz asperturik nago. Beti bakarrik nago, eta datorrelarik esku hutsik dator. Honetarako espotsatu al ginen? Askoz hobeki bizi nintzen bakarrik. Ideal beroak ditu, baina, hutsak dira niretzat. Berriz ere bakarrik bizitzea nahiago dut. Zoriontsuago izango naiz. Irripar bat zor diot nire buruari. Ez gaitezen beti serio bizi. Bakarrik bai, nahiz eta...

JON: (Berriro gelan sartzen da. Esku artean eskutitz bat ageri du. Oso alai dago). Hau poza, hau atsedena! Ostera nire lagun zahar haiekin elkartuko naiz.

BEGOÑA: Enbustero lakats! Horrela bakeak egingo dituzulakoan al zaude?

JON: Zuk ez duzu idealik baloratzen, baina, beraiek badute horren zentzua.

BEGOÑA: Eta zer, beraiekin parekaturik neurtzen al nauzu?

JON: Neurtu ez, eredu bezala jartzen dizkizut.

BEGOÑA: Ni baino maiteago al dituzu?

JON: Hori ez da hitzez adierazten dena.

BEGOÑA: Ez horixe, ekintzen bidez frogatu behar da.

JON: Txorakeriak utz itzazu kanpoan.

BEGOÑA: Egia, egia osoa! (Nazka keinu bat egiten du) Oraintxe asperturik nago zure alboan bizitzeaz.

JON: Baita ni neu ere zure harrera txarrak jasateaz.

BEGOÑA: Nire kasabizitza ere pentsatzen hasita nago.

JON: Nire idealak bilakarazteko, ez pentsa traba izango zaidanik zure erronka.

BEGOÑA: Hori al da nik zuretzat daukadan balioa?

JON: Gaur, nire begien aurrean gehiagoz jartzen ez bazara ere, berdin zait.

BEGOÑA: Ez gaur, ez bihar, eta ez etzi. Gehiagoz ez nauzu ikusiko.

JON: Lehendik ere, ohiturik gaude elkar ikusi gabe bizitzen.

BEGOÑA: (Kixkaltzen dago) Ez, ez dut jardun nahi horrelakoa izaten!

JON: (Erabat bigunduta) Lagunak aurki izango dira hemen eta harrera presatzen hasi behar gara, mokoka jardutea baztertuta.

BEGOÑA: Zeuk presta ezazu! Ez dizut oztopo haundirik egingo. Nirekikoak eginak dituzu!

JON: Egin mokoa, segi horri! Ez al dugu nahikoa?

BEGOÑA: Bai, betirako dugu nahikoa!

JON: Damutuko zara, hor konpon!

BEGOÑA: Zertaz damuturik ez dut izango.



JON: Denbora izango da lekuko.

BEGOÑA: Etsi dut zure alboan.

JON: Atsegin diezazula!

BEGOÑA: (Inguruan ageri diren bere trikota eta beste jantzi batzuk eskuan harturik kanpora joateko prestatzen da) Orain banoa! Aspertu naiz idealista baten ipuinak entzuten. Jakingo dut zeure bizimoduan nola moldatzen zaren! Agur! (Kanpora doa)

JON: (Isilune bat gordetzen du) Horrenbeste borroka! Bai, modu guztietako borrokaak gizarte honetan! Eta zergatik? Aurretik igaro den askok euren konpromisoari ihes egin diotelako. Orain gizarte giroa eta egiturak gaixorik daude. Aurreko haiek egin gabe utzi duten guztiaren zama gure gain dugu. Eta zer, guk astindu egin behar. Bizitza gogora da, baina, horrela hartzeak badu zentzurik. Idealak eskatzen digunean, bizia ematen ere jakin behar dugu. Baina, pentsaketan jardun ordez, gela prestatu behar dut. (Alde batera eta bestera ibiliko da gauza bat hartu eta beste bat utzi. Azkenik, eseri egiten da) Horrela egoki egongo da. Bai, nire lagunak aitzi-nean itxuroso agertu behar naiz. Hainbeste merezi dute. Une bat lo txurrusta egiteko hartu behar dut. Bertan, mahai ertzean burua emango dut. (Lo posizioan jarririk, denboratxo bat hortan irauten du. Esnatzearekin sutan jartzen da. Zutiturik hitz jarri hasten da). Baina, lagunak bai, nire lagunak! Gaur eskuitz bat hartu dut. Iñakirena da. Orain, lagun zahar haiekin aurkitzea gogoko dut. (Eskumuturreko ordulariari so jarriz) Seinalatutako ordua igaro da, eta inor ez da ageri. (Gogor) Jos-

tailutzat ez ninduten ba hartuko? Etsai bihurtu ote dira? Beste unetxo bat itxoingo dut, eta inor ageri ez bada, urkatu ninteke. Bai, inguruan horrelako gauza asko gertatzen ari omen da. Ezin dugu, arduraz jarduten dugunon bizitza, txerri jostailu bilakatzeko utzi. Lozorro horretatik hurbilenekoak atera daitezeko, zerbait haundia egin beharrezko garaia heldu zaidala, esango nuke. Nire idealengatik egin dezakedan haundiena, bizia eskaintzea da, noski. Baina, urkatzearekin ezer lortuko al dut? (Pentsatzen jartzen da) Bai, baietz uste dut. Horrelako jazoera bat sonatua iza daiteke. Gutxienez ezagunen artean kezka sortuko du. Gure axolagabekeriak, ez ote du erabaki hori bultzatu?, galdetuko diete euren buruei. Eta hori ez al da ekarpen bat lozorrotik ateratzeko? Gizarte arduratsua baten alde, zer gehiago egin dezaket? Bai, urkatu egin behar naiz. Zer nola urkatu egin ninteke? (Pentsatzen jarrita) Aa, bai! gerriko eder bat daukat. (Gerritik kendu eta erakutsiz) Honekin urkatuko naiz! Nire bizitzako gora-behera askoren lekuko da. Baina, aurrez mezu batzuk idatzi behar ditut. Norbait agertuko denean irakur ditzan, berandu ailegatuko baita. (Eseri eta idazten doana ahots ozenez adierazten du). «Urkatu egin naiz, baratzeko gereziando zuhaitzetik zintzilik. Jon! (Jeikiaz beste hau ere dio) Banoa, betiko noa! (Eskubiko atetik irteten da).

## II. AGERRALDIA

Arantxa, Iñaki eta Serenoa ezkerreko atetik sartzen joango dira.

ARANTXA: (Bere buruarentzat hitz egiten hasiko da, oso poliki arituz agerraldi guztian. Sartzean, alde guztietara begiratu du, harriturik balego bezala) Inor ez dago! Hitz emandako ordutik denbora aldi bat igaro da, bai! Guztiek alde egin ote dute? Hain aguro ezin liteke! Lagunak dira! Eta nola ez dute itxoegingo ba? Nahiago nuen sartzean aurkitu banitu. Orain, geroz eta gehiago kezkatzen noa. Oso gaizki jokatu dudalakoan nago. Baina, gure gizarte ustelduan beste modu batera ezinezko da! Bakarrik sentitzen naiz eta ez dut ausardirik borrokan sartzeko. Sentimentu hau nola nire lagun sutsuei ager dezaieket? Nigan itxaropen handia zuten guztiek. Ez naute gaizki hartuko, baina, laguntza izan beharrean traba izango natzaie...

IÑAKI: (Gelan sartzearekin bat, besoak jasoko ditu, esanaz) Arantxa! Lagun Arantxa! Hainbeste denbora da elkar ikusi ez dugula! (Besarkatu egiten dira)

ARANTXA: (Kezkati, baina, Iñakiren diosalari jaramon eginez) Bai, urte luzeak igaro dira!

IÑAKI: Nire bizitzako printzak diren lagunak ikusteko nuen gogoak eraman nau batzar hau moldatzera. Izan ere, gaztetako lagunarte giro hura, ez dut beste inoiz eta inon aurkitu. Nola orduan urte haiek ahaztu? Baina, Jon ez al da hemen?

ARANTXA: Iritsi berria naiz, baina, inor ez dut aurkitu.

IÑAKI: Orduan, laster helduko da! Beti zintzoa izan da, eta orain ere hala izaten jarraituko du.

ARANTXA: Bai, agertuko da!

IÑAKI: Zer deritzazu, binbitartean, elkarri gure bizi-moduaren berri ematen badiogu?

ARANTXA: Lagun batek bestearekin lehen-lehenik  
egin dezakeena da, noski.

IÑAKI: Gogoan al duzu nola egoitza unibertsitariotik  
bota gintuzten?

ARANTXA: Ez dezazula dudarik izan!

IÑAKI: Etxekoek oso harrera txarra egin zidaten.

ARANTXA: Berdin niri ere.

IÑAKI: Berehala ihes egin nuen;

ARANTXA: Gaurkotik so nahiago nik ere hori egin  
izan banu.

IÑAKI: Herri giroa gogorra atzeman nuen.

ARANTXA: Nire printzipioak, ez ziren herriak zitue-  
nak.

IÑAKI: Eta herriak ez du errurik. Herrian zuzendari-  
tza dutenek zer egiten dute?

ARANTXA: Bildots odola, otsoen edari!

IÑAKI: Zenbat doai sortzaile piztu orduko igarturik

ARANTXA: Tarrotik at lili ederrak!

IÑAKI: Negar eta malkoz, gauza bihurturik!

ARANTXA: Eguneroko jatekoaren bila, bizitza itoko-  
rra.

IÑAKI: Langile, langile! Zure deiadarra, benetako ne-  
garra. Dirudunen arra, pribilejioak utzi beharra.  
Lehenbizi, gizakiok oro gaitzen bizi! Gero, izadia,  
norberaren doaiak, zatiketa neurria. Batzuek nor-  
tasuna, nahiz bitarteko gutxi, erraz baitezakete lor-  
tu, diru gabe ere horretara iritsi. Baina, ailegatuko  
da, estadio hura bai, denak, aseak eta beteak, dirua  
arazo ez dena izango. Horretarako aurrez, bizkarra  
josirik zamaz, beharko dugu daukagun sozio-eko-  
nomiazko egitura, hautsiaz aldatu. Baita langileak

eskuan mundua, ipini denontzat, bolada bat barau. Zirkulu itxia eten arte, eta ondorioz zoriona eta ontasuna, gainezka eta xaloki eman daiteke. Gizakiak, ordea, izango du gosea, ez baita ogiz ase, eta ohi du zabalagoa. Bihotz, sentipen, intuizio denen joerak, zerbaiten beharrea, egitura emaitzen gaitetikan Kultura, langilearena, bere mistika, oso berezia, ez ote da, nahiko hazia, gizaki oro betetzeko osoki? Hara hemen, nola duten batzuek, aipatzen, sinismena! Eta horrela, Kristoren mistika, itsasten berehala!

ARANTXA: Zoragarriak, zure ahotik heldu zaizkidan hitz hauek!

IÑAKI: Herriari, langileriari opa dizkiot!

ARANTXA: Langile artean biziko zara, noski.

IÑAKI: Fabrika batetan langiletu nintzen.

ARANTXA: Eta gizakiaren ikuspegia osatzen asko lagundu dizu, noski.

IÑAKI: Borroka oro aberasgarri da. Eta langile munduan hori eguneroko ogia da.

ARANTXA: Animalien basoko borroka gogorazten dit.

IÑAKI: Gaurko egituran hori baita: haundienak tikienan jan!

ARANTXA: Egia tamalgarria.

IÑAKI: Sendi giroa, ezti bakarra!

ARANTXA: Esposaturik al zaude?

IÑAKI: Haur bat ere badaukagu.

ARANTXA: Mutila ala neska?

IÑAKI: Neskato eder bat!

ARANTXA: Gaztetako kezka eta ideal haiek, oraindik kontzientzian daramatzazula garbi dago.

IÑAKI: Zuk zeuk ere hala gordeko dituzu.

ARANTXA: Ezinbaieztatu hori! Nigan pot egin dute.

Ideiatan ez, baina, ekintza gabeko konformismo ustelean murgildurik bizi naiz.

IÑAKI: Zer bizimodu duzu ba?

ARANTXA: Ez zait gogoko inori agertzea, baina, lagun bati ezin ukatuko diot.

IÑAKI: Ez dezagun ahantzi heriotza arte guztiko lagun izango garela.

ARANTXA: Ez da nolana aurkitzen den bitxia!

IÑAKI: Urrea bezain arraroa!

ARANTXA: Hasteko, herri giro usteldu hartan, ez nuen gustuko lanik aurkitu.

IÑAKI: Eta zer erabaki zenuen?

ARANTXA: Hasieran, giroari aurka eginaz, abstentzionista izan nintzen. Baina, egoera izatu hala, indarrak mermatu zitzaizkidan, eta senideen odoletik bizitzera igaro nintzen. Gaur, horien aukako den erakunde bat zerbitzatzen dut. (Etsipen keinuak egiten ditu) Galdurik nago!

IÑAKI: Egoera hori ez al duzu gorrotatzen?

ARANTXA: Atsekabe zait, baina, praktikan onartu egin behar.

IÑAKI: Egoera aldatu nahi al duzu?

ARANTXA: Etsi nuen!

IÑAKI: Beste froga bat egin behar zenuke. Berpiztuko zara!

ARANTXA: Borroka gorroto dut.

IÑAKI: Berpiztuko zara! Herrian zereginik baduzu. Zure ahalmena beharrezko da.

ARANTXA: (Bere honetik atereaz) Ixildu zaitetz! Horretaz gehiago hitzik ez!

IÑAKI: (Ahotsez aldaketa markatuz) Ez dator berehala Jon.

ARANTXA: Ekintzailearen kontuak!

IÑAKI: Kontu garratzak gehienetan.

ARANTXA: Zuzentasun apur bat itxaropen.

IÑAKI: Gizakiaren egarria ase nahi

ARANTXA: Senideak maitatu!

IÑAKI: Eta gorrotoz ordaindu.

ARANTXA: Eser gaitezen.

IÑAKI: Bai, denbora arinago igaroko zaigu.

ARANTXA: (Mahaiera hurbilduz so jartzen da) Paper bat dago. (Eskuan hartuz irakutzen du) Ez, ez da posible!

IÑAKI: Zer duzu? (Arantxak papera luzatzen dio. Irakurri ondotik...) Nik, nik hil al dut? (Karrasika)

ARANTXA: Horrela ez zaitez jarri.

IÑAKI: Nork hil du orduan?

ARANTXA: Zuzendariak, giroak, herriak...!

IÑAKI: Nire bidez herrian murgildu zen. Orduan nik hil dut.

ARANTXA: Giza ekintza izan zen zurea! Gau beltzean ilargi bilakatu zinen.

IÑAKI: Leize aurreran argia ostu diot.

ARANTXA: Herriak hil du.

IÑAKI: Geu gara herria eta geuk hil dugu!

ARANTXA: Herriko bizkarroiek hil dute. Bestelakoak ere badira herrian. Eta azken hauek ez dute errurik.

IÑAKI: Ihes bakoitza nortasunean heiotza kolpea da.

ARANTXA: Bizitzaren atarian, arbasoen ihesak ditugu ondare!

IÑAKI: Egiturek haien neurria ematen digute.

ARANTXA: Ustelkeriz beteak daude.  
IÑAKI: Tamalgarria, baina, hala da.  
ARANTXA: Nortasunaren hiltzaleak dira. (Une horretan Serenoa sartzen da. Arnasestu dator)  
SERENOA: Garrasi triste horiek entzun al dituzue?  
Gizonen bat hil berri da!  
IÑAKI: (Sentimentuz gainezka) Gure Jon!  
ARANTXA: (Maiteminez) Jon, Jon!  
IÑAKI: Barka egiogun. Ez daki zer egin duen!  
ARANTXA: Hil ez! Bizitza sufrimenduz beterik dago,baina, zergatik ihes egin?  
IÑAKI: Zoriona eta bakea mereziak ditu.  
ARANTXA: Hutsaren hutsa!  
SERENOA: Urduan ezaguna duzue?  
IÑAKI: Tori gutun hau/ Irakur ezazu (Isilunea irakurtzen ari den bitartean)  
SERENOA: Gizajoa! Gaur jende asko da horrela amaitzen duenik.Orain gorpua atzeman behar dugu.  
ARANTXA: Hilaz gero, gorpua zertarako?  
IÑAKI: Bai, gurea dugu. Gure senidearen lekukoa.  
SERENOA: Herriko epaileari parte eman behar dugu.  
ARANTXA: Zertara datoz epaileak hil eta gero?  
IÑAKI: Bizitza amaitzean egindako oroz epaituak izango gara!  
SERENOA: Orain ez dugu galtzeko denborarik (Partitzeko keinua egiten die)  
IÑAKI: Gure herriaren sustraiko arazoa, gure nortasun zainak nola itsatsi da. Horretarako, bitarteko bat daukagu: borrokan jardun. Baina, edozein eratakoan, ez! Pertsona osoki hartuko duen egitura,



borrokaren emaitza izan behar da. Bestela, uzta-  
rri astunago baten pean eroriko gara. Gure burua  
desegingo dugu. Benetako askatasuna ekarriko di-  
gun borroka egin behar dugu.

AMAIERA

## II

### MITOEN BARATZA

J. TXURDINTXO

#### JOKO LAGUNAK:

Agamunda: etxeko jauna, berrogeita hamar urte ingurukoa.

Muski: Agamundaren semea. Hamabostetik hemezortzi urte bitartekoa.

Guardia I: Hogeita hamar urtekoa.

Guardia II: Hogeita zortzi urtekoa.

Guardia Generala: Berrogei urtekoa.

Izozko: Berrogeita bost urtekoa. Auzoko baserritarra.

Palata I: Izozkoren emaztea. Berrogei urteko emakumea.

Palata II: Aurrekoen alaba. Hamaseitik hemezortzi urte arteko neskatua.

## LEHENENGO EKITALDIA

Jokalekua: Antzinako euskal baserri bateko sukalde. Ikusleak gibelean duen murraren oinean beheko sua dago. Inguruak, aldamenak, kearez beteta daude. Su gainean, olatz batetik zintzilik pertza dago egosten. Agamunda (etxeke jauna, ikusleei bizkar emana,) sutokian egoskinak moldatzen ari da. Eskubiko murruan kaiku, eltze, burrunzali eta beste zenbait tresna finkatuak ageri dira. Ezkerreko murruan berriz, irratia zahar, egunkari eta abar Jokalekuko ezker sarreran Muski hamabostetik hemezortzi urte arteko mutila, irratia maneiitzen ari da. Garrantzizko zerbait nahi duela dirudi. Eserleku bezala, enbor motz edo txanbilak ere, badira sutondoan. Oihala altxatzean sukaldean dauden pertsona biek, bakoitza bere lanean ari direlarik, une batez mutu iraungo dute. Orain tximistaren antzo ixkanbila eta zarata haundiekin, iskiluz armatutako guardia bi sukaldean sartuko dira Guardiiek biziki jantzi apainak daramatzate.

GUARDIA I: Geldirik ala seko!

GUARDIA II: Atxilotuak zaudete!

(Agamunda bezala Muski, lehenbiziko sustu keinuaz gero, mugimendu gabe, izoztuak, mututuak gelditu dira).

GUARDIA I: (Agamundari) Gorri, komunista, animalia, euskaldun abertzale!

GUARDIA II: Fedea, fedea! Gure herrian komunismoarentzat ez dago tokirik.

GUARDIA I: (Guardia I-rengana zuzenduaz) Tori!  
(griluak pasatzen dizkio). Etxejauna lotu ezak.  
Otso zahar, edo lehoi madarikatu, alu, berori duk!  
(Orain mutilari so) Nik neuk preso hartuko diat  
gazte hau.

(Agamunda guzti hori entzunaz gero ezin da  
ixilik egon. Halako batean haizeaz beteak di-  
tuen birikak erabat hustu arte jaurtitzen dituen  
hitzak zanpatuko ditu)

AGAMUNDA: Hori ez ukitu! Ez du errurik! Behar  
dena pairatu nik egingo dut.

GUARDIA I: (Agamundari) Ixo, bestela bertan odol  
hustuko zara! (Guardia I-ari) Lotu ezak lehenbaile-  
hen! Estutu, segurtatu! (Orain ohiu gogor batzuk  
jaurtitzen ditu). Juju, juju, aiup...! (Ohiuak entzu-  
tean, Muski mutik gazteak, ikusleentzat nabarmen  
delarik hortzak estutzen ditu).

GUARDIA I: Beldur al haiz? Buruarekin pentsatu be-  
har diagu.

GUARDIA II Gori-gori egingo haugu gorri haizelarik!

GUARDIA I: (Guardia I-ari so) Heldu lanari, atxilo  
ezak zaharra!

(Orain Guardia I etxe jaunarengana zuzenduz  
hura lotzen du. Bienbitarte guztian Guardia I  
iskilua altxaturik duela, ikusleei bizkar emana  
ageri da. Muskik aitari begirik kendu gabe guz-  
tia jarraitzen du)

GUARDIA II: Prest zegok!

GUARDIA I: Har ezak berriz iskilua eta hago adi mu-  
gimendu txikienera.

GUARDIA II: (Utzia zuen iskilua berriz eskuetan harturik aita-semeei zuzenduz hau dio)

Geldirik ala bestela tiro bana doakizue.

GUARDIA I: (Iskilua utzi eta Muski lotzera doa. Inguratzean Muskik hank jaso eta ostiko bat ematen dio barrabletan. Guardia I ondorioz lurrera ziplo erortzen da. Orain Guardia I-k iskilua altxatuz disparatu egin nahi du, baina, ez du lortuko)

GUARDIA II: (Gogor ernegatuta Muskiri dio) Heriotza, heriotza irabazi duk! Bertan hilko haut Hireak egin dik!

(Orain Muski aitarengana hurbiltzen saituko da, baina, Agamundak, "Hanka ahal baduk" esango dio)

AGAMUNDAK: Hanka ahal baduk!

(Muski tximista bezala ihes doa)

GUARDIA II: (Agamundarengana zuzenduz) Dena zuk pagatuko duzu! Komunista, animalia, gorri Zureak egin du! Gaur bertan kanposatuan zuretzat etzan-leku bat izango duzu! Kanposantuak ez al zaitu beldurtzen? Betiko, betirako, in saecula saeculorum! Izan ere, ez duzu arimarik! Animalia bat zara. Ikuluan txahalak, behiak, txerriak...ba, zu zeu baino animalia haundiagorik ez duzu gizendu! Ez eta gizenduko ere! Gaur bertan kanposantua zure etzan-leku izango duzu. Entzun didazu? Entzun didazu?

(Guardia I etzanda dagoen lekuan zerbait mugitzen da. Orain lurrean itzuli egin nahirik dabilela dirudi)

GUARDIA II: (Guardia I-rengana hurbilduz) Zutitu adi! Jaiki! (Iksilua altxatuz Muski eskapatu den atea seinatzen du) Berehala harrapatuko diagu! Oraindik ez dik urrutian izan behar. (Guardia I bati ostikotxo bat ematen dio) Ez ezakela adarrik jo! Bestela gure balioak kaxkar baloratuko dizkitek. Ez al duk entzuten? (Berriro ostikoa emango dio)

(Une honetan Agamundak doministiku egiten du. Guardia II beldurtu du. Iskilua jasoaz Agamundarengana zuzentzen da)

GUARDIA II: (Ahots erre batez ariko da) Bertan hilko zaitut. Kontuz gero! Arnasik ere ez ezazula har nire baimenik gabe! Zerbait behar baduzu aurrez nirengana zuzenduz baimena eskatu behar didazu. Bai, baimena! Baimena hitz egiteko ere eskatu behar duzu. (Geroz eta urduriago ageri da) Gorri! Eta ez zara zuri! Ez zara fededun! Ez zara Jainkoarena! Gorria zara, sua, infernua! (Su ta gar dago) Gaur bertan infernua, kanposantua izango da zuretzat etzan-leku!

GUARDIA I: (Oihuz eta garrasika) Heriotza, preso! (Guardia II ikaratu egin da. Orain Guardia I-rengana zuzentzen da. Ostiko bat edo beste ematen dizkio)

GUARDIA II: Jaiki hadi! Zai nagok!

GUARDIA I: (Berriro lurrean itzulika dabil) Odola... ixuri behar dik!

GUARDIA II: Azkar habil! Zutitu hadi!

GUARDIA I: (Lurrean itzulika jarraitzen du) Non nago? Zer gertatzen zait?

GUARDIA II: Lurrean hago! Iskilu gabe aurkitzen haiz! (Ostiko emango dio) Jaiki hadi! Lehenbailehen mugitu behar gaituk.

GUARDIA I: (Indartsu) Aii, aii! Min diat.!

GUARDIA II: (Makurtuz hurbiltzen zaio) Non daukak min?

GUARDIA I: Arrautzak lehertu zizkidak.

GUARDIA II: (Ironiko) Goringoa ala zuingoa?

GUARDIA I: (Lurrean eseritzen da) Arraultza azala!

GUARDIA II: (Keinu airoso batekin) Baa...! Ez duk ezer hori besterik ez bada! Harri piska bat janez osatuko haiz! Oiloen modura! Larrean ere egin beharko duk. (Hori entzutearekin Agamundak algarategiten du)

GUARDIA II: (Agamundari) Nork eman dik horretarako baimena, Bai, nire baimena!

GUARDIA I: Nire lepotik algaraka jarri al da?

GUARDIA II: Gorri bat duk animalia eta gu aldiz gizonak gaituk! Osoki gizonak ere!

GUARDIA I: Gizon sailduak!

GUARDIA II: Jainkoaren legea zaintzeko borrokatzen garenak!

GUARDIA I: Helburu sailduak ditiagu.

GUARDIA II: Beti fededun gaituk.

GUARDIA I: (Orain lurretik altxatuz Agamundarengana doa. Irekiten dagoen lapikoa dirudi) Non duzu semea? Zer egin du? (Agamunda ixilik eta serio, begitartez begitarte jarraitzen dio. Orain Agamunda kolkotik hartuz) Non jo nauen adierazi egidazu! Bestela kixkaldu egingo zaitut. (Besterik gabe belarrondoko bat ematen dio)

GUARDIA II: Ez zaiok hire belarrondokoa gustatu. Guardia I-rengana zuzenduz) Hori ez! Nagusiek epaituko ditek! Gu geu ez gaituk horretan sartu behar!

GUARDIA I: Ixil hadi hi ere! Iskilua eskuan izanik nolaz ez duk hil?

GUARDIA II: (Mindurik) Orduan nireak dituk erru guztiak!

GUARDIA I: Zeinen erruaz ari haiz?

GUARDIA II: Mutil gazteak zanpatu hau!

GUARDIA I: Mutila nik hilko diat (Agamunada seinalatzen du) Orain hori eramanez ezak presondegira.

GUARDIA II: Bion artean eramango diagu.

GUARDIA I: Bakarrik ez al haiz hori egiteko lain?

GUARDIA II: Nagusiek hitaz galdetuko dutenean zer esan.

GUARDIA I: (Pentsati paseatzen hasten da) (Orain bere buruarentzat hitz egingo du) Arrazoi dik! Nagusiek koldartzat, kaxkar bezala epaituko naittek. Eta ni Guardia kondekoratua nauk. (Guardia I-rengana zuzenduz) Arrazoi duk! Arazo bat sortu zaiguk. Biok diagu horren errua, ezta? Beharbada nik gehiago, baina...

GUARDIA II: Nik zeren errua?

(Une honetan Agamundak nekatuaren seinaleak agertzen ditu)

GUARDIA I: (Agamundari) Nekatuta hagoela? Laster betirako deskantsatuko duk (Ironiaz) deskantsu on bat merezi duk, noski. Hire lanak benetan agurtzea merezi dutenak dituk.

GUARDIA II: Monunmentu bat altxatuko diagu.

GUARDIA I: Bai, kanposantuan!

GUARDIA II: (Guardia I-ari) Noiztik animaliak kanposatura!



GUARDIA II: Egia duk! Honentzat kanposatua ohore haundiegia duk.

GUARDIA II: Baina, ez diagu erabat kanpoan utziko. Linbokoan lurrean tokia izango dik.

GUARDIA I: Ideia ederra duk<sup>8</sup> (Orain bi Guardiak algaraz hasten dira)

(Agamunda bere aldetik lasai ageri da)

GUARDIA II: Linboan ume beltzen artean gorri batek dotore egingo dik.

GUARDIA I: Zer monumentu hoberik! (Agamundari so) Eguzki dizdiratsu izango haiz.

GUARDIA II: (Agamundari ere) Denek gurtuko haute.

GUARDIA I: Gu bakean utziko gaituk.

GUARDIA II: Daukagun ohorearekin konformatzen gaituk.

GUARDIA I: Zertxobatean hobetzea lortzen badugu hobe!

GUARDIA II: (Guardia I-ari zuzenduz) Orain hire erruz graduetan jaisten bagaituzte zer?

GUARDIA I: (Kexu) Oinarriztat erru bera izan dugula ezarriko diagu. Horrela konformatzen al haiz?

GUARDIA II: (Desesperazio puntuaz) Errua, errua!

GUARDIA I: Ez hadi txundituta jarri. Berehala konponduko diagu

GUARDIA II: Mutil gaztea harrapatu behar diagu.

GUARDIA I: Nagusien aurrerako gezur bat landuko diagu. Mutil gaztea harrapatzea, baina, errezago izango zaiguk.

GUARDIA II: Bai, noski.

GUARDIA I: Eroriko duk. Nik neuk hilko diat.

GUARDIA II: Orain irudimena izoztu eta esku artean daukaguna konpondu behar diagu. Gero, noizbait, halakoren batean horrelako zerbait izan daitekeel pentsatzea ez duk txorakeria bat.

GUARDIA I: Baserrian, Agamunda bakar-bakarrik aurkitu diagu. Entzun duk? (Guardia II-ari bizkar gainean eskua ipintzen dio. Zerbait garrantzizkoa agertu nahi diola dirudi)

GUARDIA II: Agamunda, bakarrik harrapatu diagu, bai!

GUARDIA I: (Haserre) Kirtena haiz benetan! Semea baserrian ez dugula aurkitu adierazi nahi diat.

GUARDIA II: (Sutan hau ere) Hori bera ez al diat aitortu?

(Orain Agamunda Guardiengana hurbiltzen hasten da)

GUARDIA I: Geldi hagoen tokian ala bestela bizia arriskatzen duk.

AGAMUNDA: Kontakizun horrek ez dizue balio.

GUARDIA II: (Sutuan berriro ere) Zer dela eta? (Isilunea) Baina, preso hago, ixo berehala! Ez duk hitz egiteko baimenik.

GUARDIA II: Honek salatuko dik gure trukua!

GUARDIA I: (Biziros hasarre Agamundarengana zuzenduz) Hori adieraztea helburu al zenuen?

AGAMUNDA: Hori bera!

GUARDIA I: Hil egingo haugu, eta kito!

GUARDIA II: Eta orduan heriotza nola justifikatuko dugu?

GUARDIA I: (Urrats batekin ikusleengana hurbilduko da) Mutil gazte hori nik hil behar diat. (Aga-

munda kolkotik hartuko du) Hire semea nik hil behar diat. Nire iskilupean zerraldo eroriko duk. (Iskilua Agamundari zuzen erakusten dio)

GUARDIA II: (Barruan duen kezkaarentzat erantzunik ez duela aurkitzen dirudi) Dena kontropean zegok. Nagusiek bazekiten etxean zegoela.

GUARDIA I: (Orain ekaitzak bat-batean harrapatu balu bezala ariko da) Nire adimena agortu duk eta irteerarik gabe nagok. (Alde batera eta bestera eskuak keinuz eta dardaraz mugitzen dituelarik)

(Une batez hiru protagonistak ixilik geldituko dira)

AGAMUNDA: Ba dut zuretzat irtenbide bat!

GUARDIA I: (Apalkiro Agamundarengana hurbilduz) Hik nire arazoarentzat erantzuna duala?

GUARDIA II: Zer duk, Esan egiok?

AGAMUNDA: Nire libertatea jartzen dut prezioz.

GUARDIA I: (Biziki sutan) Bertan hautsiko haut. Truku hori ez diagu inoiz onartzen. Truku bat besterik ez duk hori.

GUARDIA II: Zergatik ez, truku saildu bat baldin bada?

GUARDIA I: Zeri deitzen diok saildua?

GUARDIA II: Litekeena duk guretzat salbazio bide izatea.

GUARDIA I: Salbazioa? Zeinen hitz polita!

GUARDIA II: (Agamundarengana hurbilduz eta goxo) Ager, ager osoki hire proposamena!

(Orain Agamunda agintea balu bezala mintzatu da)

AGAMUNDA: (Patxaran hitz egingo du) Ea, hasteko har ditzagun txanbik bana! (Hiruak ikusleei aurpegiak erakutsiz eseriko dira. Erdian, Agamunda dager eskuetan kateak dituela. Bere bi aldeetan Guardiak iskiluak lurrean emanak dituztela).

AGAMUNDA: Zuek nire baserrira hurbiltzean tratantea nuen etxean!

GUARDIA I: (Bere buruarentzat hitz eginez) Tratantea, bai! Tratantea ere ondo duk benetan!

AGAMUNDA: Baserrira inguratu zaretenean, presentzia horretaz jabetzean, berriro ehizarik gabe itzultzea erbaki duzue.

GUARDIA II: (Artegaturik) Esku hutsik nagusiengana itzuli?

GUARDIA I: (Agamundari) Graduak ez dira txantxetan galtzekoak. Entzuten al diak?

GUARDIA II: Presondegira ehizarik gabe itzultzeko proposamena egin digu. (Eskuaz bekokia igurtzen du)

GUARDIA I: Horrekin ez dugu lepoan dugun katea luzatu besterik egingo. Gaur bertan, berehala hire bila bidaliko gaitiztek.

AGAMUNDA: Ordurako baserria utzi eta herri hone-tatik ihes egingo dut.

GUARDIA I: Hiri alde egiten utzi?

GUARDIA II: (Zutik jarriaz) Eta auzokoek irteten ikusten bahaute?

AGAMUNDA: Ilunabarra heldu arte gorde egingo naiz. Gero prekauzio handiz hanka egongo dut.

GUARDIA I: Zirt edo zart, baina, erabakia hartu behar-rean gaudek. Denbora luzatzen zihoak. (Orain

eserita dagoen lekutik altxatuz iskilua begiratzten jarriko da)

GUARDIA II: (Agamunda sorbaldatik hartuko du) Ja iki hadi! Segi berehala mandiora et ezkutatu ondo!

AGAMUNDA: Kendu egidazue kate hau!

GUARDIA I: (Agamundarengana hurbildu eta gero une batez zalantzan balego ageri da) Eta zergatik alde egin duk baserritik? Nola jakin duk hire bila etorriak ginela?

AGAMUNDA: Gure ixileko albistariak zuen bisitaren berri eman dit. Haiek dute nire ihesaren errua.

(Orain Guardia I-ak keinu bat egingo du. Ondoren bere iskilua Guardia II-ri emango dio. Eta azkenik, Agamundarengana hurbilduz eskuak libratuko dizkio)

GUARDIA II: Segi mandiora! Denborarik ez ezakela galdu!

GUARDIA I: (Agamundai so) Agindua bete ezak ala bizia galduko duk! Ez ezakela deskuido txikienik izan. (Agamunda beste gabe atetik irtengo da)

GUARDIA II: Ziur nagok portatuko dela!

GUARDIA I: Bestela gureak egin dik!

GUARDIA II: Hala ere egin duguna aukerarik onena duk guretzat.

GUARDIA I: Graduak alboratzea gogorra duk kostatzen direnak kostata!

GUARDIA II: (Suari so jarririk) Sua itzali behar diagu! (Hurbildu eta hankaz itzaltzen jarriko da)

GUARDIA I: Ez hadi lapiko izan! Pertz bat har ezak eta etxe atarira joan eta urez beteta ekar ezak!

(Orain Guardia II, eskuan daukan iskilua lurrean utzirik uraren bila doa)

GUARDIA I: (Pentsati jokalekuan ibiltari hizketan hasiko da) Komunista, gorri, animalia, euskaldun-abertzale! Bai, gorroto ditut. Guzti horiek nik hil behar ditut. Orain ere izan dut okasioa, baina, mutil gazte alu horrek...! Ez dut jornalik gabe gelditu nahi. Familia daukat Guraso naiz. Degradatzen banaute, irabazi eskasak izango ditut. Euskaldun deabruak! Hauei abertzale txertoa ipini dietenak madarikatzen ditut! (Orain Guardia II baldekara urarekin sartzen da)

GUARDIA I: Inork ez hintuen ikusiko, ezta?

GUARDIA II: Haizeak ere errespetua ziguk.

GUARDIA I: Denaren beharra izango diagu.

GUARDIA II: Hanka egin behar diagu lehenbailehen.

Hemendik aurrera, une eta epe txikiena ere, arriskutsua izan zitekek gure etorkizunerako.

GUARDIA I: Ur gehiegi ez ezakela bota! Ur arrastorik ez dadila gelditu. Pertz hori berriz lehengo lekura eramanez ezak lehenbailehen. (Guardia II, eskuan baldea duela kanpora irteten da)

GUARDIA I: (Iskilu biak bere baitan dituela) Bi iskilu bai, baina, ehizarik ez! Honek ez dik itxurarik! Basuerdeak aurrean izan, eta esku hutsik etxeratu behar! Basatiak dituk jende hauek. Abertzale basatiak, piztiak! Gu, aldiz, hiritarrak, gaurkoak! Basoa animalien unea duk. Hiria berriz gizonena. Animaliak senaz mugitzen dituk. Gizonok berriz adimena diagu gidari. Senak oreka dik emaitza, baso usaia, ezea, bizia. Adimena, zorrotza duk. Punta dik. Er-

tza zaramak. Senak iraupena, udaberria maite dik. Adimenak berriz, heriotza, udazkena joera dik. Basoa, animalia, sena, oreka, udaberria bezala hiria, gizona, adimena, ertza, udazkena gaur bateratu egin dituk.

GUARDIA II: (Etxez kanpotik deiadarka) Ba al hator?

GUARDIA I: Bai, bai! (Kanpora doa)

## OIHALA

### BIGARREN EKITALDIA

Jokalekua: Bulego moldeko gela bat. Erdian besaulki bat dauka, baita mahai hand bat ere. Mahaiaren ertz batean telefono bat ageri da. Ikusleei ezker-eskuin eta gibeledko zaien murrutik zintzilik, zenbait lauki guardia irudiz gainezka. Liburutegi bat ere bada eskubiko aldean. Eserleku batzuk daude beste aldean. Sarrera bakarra du. Beti ezkerretik egingo da. Hitz batean gela apain bat itxuratzen da. Oihala altxatzean, GUARDIA GENERALA (GU.GE.) besaulkian eserita ageri da. Ikusleei so emana da. Guardia arruntetatik kolkoan dituen domina batzuek bereizten dute. Paper batzuk eskuartean eta zigarroa ezpainenetan, une batez, bere bulegoko eginkizunetan murgildua agertuko zaigu. Orain ernegatu keinua eginez bakarrizketan hasiko da.

GU.NA.: Une hartan tratantea zutela baserrian, eta kito gelditu da gure operatibo oro (Isilune bat). Orain aurpegia alaitzen zaio) Zer gero! Ongi jokatute dute. Zerbait ikasia dute. Ez da gutxi. Bai, herriaren aurrean, lasaitasuna, ordena, segurtasuna

gure jokabidean islatu behar ditugu. Baina, zer esan dut? Herria aipatu dut. Zer herri, gero? Hemen orain hiritarrak daude eta gaineatiko esaldiak utikan joan daitezela!. Bai, hiritarra! Gure iraultzaren emaitzaz hiritarrak sortzen ari gara. Izan ere, hiritarra hitza munduan inoiz izan den Inperiorik haundienaren sorkuntza da. Eta herria hitza, aldiz, sasikume batzuen sasi aipamena besterik ez da. Gure artean hiritarra sortu behar dugu. Hiritarrek, Romulo-Remo misteriotsuen mitoarekin gizarte inperial bat liluratu zuten. Guk ere, orain, gure gizarte hau liluratzeko dugu helburu. Baina, Romulo-Remo mitoak zuen mistika nola bersortu? (Isilune bat. Pentsati balegon ageri da) Beste mito bat behar dugu. Mitoaren larritasuna predikatu behar dugu. Hiritarren agintea eskuetan harturik daukagunean ezin dugu mito baten faltaz dena galzorian eman. Ez, ez hori ez! (Isilune bat. Luma eskuetan duela idazten jartzen da) Hala ere hogeigarren mendean mito berri bat sortzea zaila iruditzen zait. Egun, barra-barra zientzia eta zientifiko hitzak aipatzen direnean, mito berri bat nola molda daiteke? (Isilune bat. Orain luma mahai gainean utziaz ezkerreko eskuarekin okatza igurtzen jartzen da). Baina, zientzia eta zientifiko aipamenak ere ez ote dira mitoak? Gaur etika horiekin estalirik ageri diren errealitateak, bihar mitotzat ez ote dituzte emango? Nork ezezta dezake hori? Historia horrelako adibidez beterik baitago. Hara, atzoko egia gaurko mito bilakatu zaigu maiz! Nork ukatu lezake egia hau? (Isilune bat. Zigarroa piztuko du) Baina, Hori ez



da nire oraingo arazoa. Oraingo nire arazoa: egia ala mitoa izan, gaurko gizartearen aurrean, egia itxuran sortuko den mamua nola bersortu da. Bai, Romulo-Remo mitoaren antzeko mistika sortuko duen mitoa eraiki beharra daukagu. Erromako Inperio handi haren handitasuna eta estabilitatea gure gaurko hiritarrari emango diona sortu da, alegia. Gure iraultza honen emaitza mugarik gabeko agintean haragitu behar dugu. Gure ideiak bizizaren azken egunetan lore bihurtuak kontenplatu. Areago, gizarte zabal batek harrotasunez onartu eta laudatzen dituela jabetu. Hiritar egokia bezain esanekoa lortu. Gure kulturaren iturrira atzerrietatik ere dastatzera hurreratuko dira. Gure kultura eta zientzia errealitate bakar batean nahastuko dira. Gure politika eta zuzentasuna, berdindu egingo dira. Gure nortasuna eta gizalegearekin ere horrela gertatuko da.

(Orain atea joko du norbaitek)

GU.GE.: Aurrera!

(Guardia I eta Guardia II. Iskiluak eskuetan ditzutela barrura sartuko dira. Eta biak, aldi berean, «*firmes*» keinua egingo dute Guardia Generalaren aurrean)

GUARDIA I eta GUARDIA II: *Firmes!*

GU.GE. (Besaulkitik altxatuz *firmes* keinuarekin erantzuten die)- *Fiirmes!* (Isilune bat) Eta Baserritarrak zer? Ez al dituzue atxilotu?

GUARDIA I: (Iskilua lurrean finkatuz puntatik heletzen dio) Jauna, baserri guztia miatu dugu. Inoren aztarnarik ez dugu aurkitu.

GUARDIA II: (Iskilua luzeetara emana eskuan duela dago) Eta baserrian dagoen ordenak bake ederrean jabe dela erakusten du.

GU.GE.: (Biei so eginez) Nola justifikatzen duzue ihes hori? Ihestzat ematen baitut gertakizuna.

GUARDIA I: (Aurrez aitortuarekin jarraituz) Bai, ados nago! Nik ere ihes bat egon dela uste dut.

GU.GE.: (Guardia I-ari finko begiraturaz) Eta nola justifikatzen duzu?

GUARDIA I: Nik uste dut, ixileko albistari horietariko baten mezua jaso zutela.

GUARDIA II: (Guardia I-ari lehenik, eta berehala GU.GEri begira) Bai, euskaldun abertzale eta gorri horiek albistari azkarrak dituzte. Hori horrela delarik, oro da posible.

GU.GE.: (Aurpegi keinu bitxiz) Baina, gure asmoaren berri nork nola eman ahal izan die? Gure arteko isilpekoa ez al zen bada atxiloketa? Ala gehiago ez dago isilpekorik?

GUARDIA I: (Ausardiz mintzatuko da) Bai, isilpekoa zen! Eta hala eraman izan dela esango nuke nik. Baina, lehen aurre-agerraldia sintomatikoa izan zela, dirudi; izan ere, iskiluz iarmaturik baserri baten aurrean agertzeak, ematen du zer pentsaturik.

GU.GE.: Hauek horrela badira, esango nuke, hurbi-lean euren gisako gehiago ere badugula. (Pentsati itxura hartzen du. Eta beste gabe eseri egingo da)

GUARDIA II: (Guardia I-aren mezua hiltzatu nahirik) Baserritarrak beti dira gizaki bitxiak. Bai, sena berezi bat dute horrelako gora-beheretan defentsiban mugitzeko.

GU.GE.: (Guardia biei gizonki gizonki hitz egiten die) Utzitzazue iskiluak (eskubiko murrua seinalazten die) Murruaren kontra, noski!

(Guardia Iak eta Guardia Iiak agindua beteko dute)

GU.GE.: Hartu itzazue besaulki bana. (Orain Guardia biak liburutegiaren adetik mahainaren alde bietan eseriko dira. Ikusleek hiru protagonisten aurpegiak ikusten dituzte)

GU.GE.: (Telefonoa eskuan duela bi Guardiiei mintzatuko zaie) Une bat! Kartzeleroari gertatuaren berri eman behar diot. (Telefono zenbaki bat markatzen du. Aparatua belarrira eramango du). Ez dute erantzuten! Linea guztiak hartuak dauzkate. (Beste isilune bat dago)

GUARDIA II: Aurki beste froga bat egin behar!

GU.GE.: Askotan fite eginaz ere lortu ohi da (Eta une berean berriro telefono zenbakia markatzen du) (Berehala erantzun diote)

– Guardia Generala naiz... (Isilune tartetxo bat) Itxaroten zenituzten gizon horiek ez dira agertuko... (Berriro tartetxo bat) Ez da behar bezala atera... (Tartetxoa) Ekintza guztiak dute porroterako tartea... (Tartetxoa) Bai, oraingoan ez dugu asmatu... (Tartetxoa) Hori bai, hiritarren aurrean seguritate mezua hedatu behar dugu... (Tartetxoa) Garaileen hiritar multzoan betirako ziurtatuta bagenu bezala kuraiaz eta lasai agertu behar gara... (Tartetxoa) Bai, hala da... (Orain tarte haundiagoa) Horretaz beste batean hitz egingo dugu patxaran... (Tartea).  
Agur, agur.

(Orain Guardi biengana zuzenduz aldi berean)

– Egin dugun arrazoi bidea egia bada, esango nuke oraindik menperatutako hiritarrak ere, ezkabia pean daudela.

GUARDIA I: (Sutsu entzun berria baieztatzera dator) Euskaldun abertzale eta gorrien arraza da ezkabiarik aluena.

GUARDIA II: Agure, ume eta emakumez osatutako hiritar multzoan guzti hori. Gizonak, gure menpean erori ez diren hiriak defenditzen baitabilta. Eta nolako defentsa eginez!

GU.GE.: (Maixu tankera gogoratzen duen jarrera hartuz) Aurrerako gure jokabidea defentsiboa ezezik, mistikoa izan behar du. Menpean ditugun hirietan eraman behar dugunaz ari naiz. Menperatu ez ditugunetan berdina ezin izan baita.

GUARDIA I: (Eskuetan girgiluak ageri dituela) Zer? Armak surtara bota behar ditugula!

GU.GE.: (Beti lasaitasuan dario eta maixu airez jarduten jarraitzen du) Jokabide mistikoak arma psikologikoak aukeratzen ditu. Ez da armak uztea! Jokabide psikologikoaren interpretazio ziztrina litzateke horrelakoa balitz!

GUARDIA I: (Girgailuekin jarraitzen du) Ez dakit arma psikologikoaren pean zer ulertzen ari zaren Baina, nire esperientziak iskiluen legea nagusitu behar dela erakutsi dit.

GU.GE.: Gaurkoguduak bereziak dira. Militar zizentzien azken aurrerapenek hiritarren psikologia kontuan hartzera eta funtsezko aitortzera garamatzate.

Hiritarren psikologia erdiesteko sakoneko analisiak beharrezko egiten dira.

GUARDIA I: (Seguritatea lortu duela aditzera ematen du) Ados! Hiriak harresituak zirenean gudak ez ziren gaurko moduan egiten.

GUARDIA II: (Bala bi eskuan dituela ageri da. Guardia Generalari begiratzuz mintzatzen da)

Gaurko armak indartsuagoak direla ez dago ezbairik. Horiek arma psikologiko deitzera bagoaz, sakonago eta zorrotzago heltzen direlako dela... ulertzen dut.

GU.GE.: (Biei mintzatuz) Militar zientzian arma psikologikoak duen zentzua ez duzue ulertu.

GUARDIA I: (Ausarki agertuz) Nire esperientziaren ondorioak zientzia horrekin bat ez datozela?

GU.GE.: Ahots doinu ederrean, Guardia I-iari liburutegia seinalatuz). Mesedez, liburu hori pasa egidazu! Bai, azal gorriko hori!

GUARDIA II: (Liburua eskuetan hartuz) Hau da, noski, eskatzen didazuna?

GU.GE.: (Liburu bereganatuz) Liburu hau Amerikanoek duela hilabete argitaratu dute. Mila orrialde ditu. Guda psikologikoaz ari da. Izan ere, gerrilak, euren armekin bakarrik garaituko ditugu. (Keinu baikor bat egiten du) Zer ari naiz, Baina, gerrilarena ez da gure kasua. (Isilune bat) Hala ere, amerikanoak guretzat eredu izan behar ditugu. Euren kezkak eta ondotiko gureak maila berean bilakatu beharko ditugu. Antzekoak izan behar dira, gutxienez. Galdera da, nola hiri multzo menperatu bat konformitatera eraman? Aurkibidea irakurriko ni-

zueke, baina, norberak egitea da probetxugarriena  
(Bitarte guztian orriak aurrera eta atzera dabilta)

GUARDIA I: (Guardia Generlaren arreta bereganatu nahirik) Gure hiri honetan egindako azterketarik ba al dago?

GU.GE.: Azterketak egiteko denbora asko behar da.

GUARDIA II: (Guardia I-aren pareko izan nahirik, Guardia Generalari hau esaten dio) Bienbitartean, hiritarrak nola liluratu ditzakegu?

GU.GE.: (Jator hitz eginaz) Ez dago bienbitarterik. Hiri honetan eraman behar dugun jokabidea, lerro handietan bederen, garbi dago.

GUARDIA II: Hori da behar duguna!

GUARDIA I: (Beti eskuetan dabilten girgailuak mahai gainera erotzen utziaz) Hiri sumindua deritzait esku artean daukagun hau! Hainbeste heriotza eta odol hustutzek zauri latzak utzi ditu.

GUARDIA II: Eta oraindik hiriaren hainbat aldetan irekitzen jarraitzen dutenak!

GU.GE.: (Guardia bieie mintzo zaiela) Zuen oraingo hitz jarrio horiek ere, azterketa islatzen dute. Hara, nola errealitate batzuk jasotzen dituzuen!

GUARDIA I: Hauek bezala beste mila daukagu adierazi nahi izanez gero.

GUARDIA II: (Ausart jarritz) Baina, sentimentuentzat ez dago tokirik. Indarra, sua, gaitza, euren alor propioan borrokatu behar dira. Zigorra erabiltzen jakiteak bakarrik itsaso beltz hau baketu lezake. Beste ezerk ez!

GU.GE.: Zigorra diozu, bai! Baina, zer mailatan, nola eta non?... eta beste mila xehetasun kontuan izan

behar dira. Hitz batez metodo zientifikoak aplikatu behar da.

GUARDIA II: Zigorra, armak, baietz diozu. Baina, ondotik egiten duzun agerpenak aurrekoaren uko babestu bat dirudi.

GU.GE.: (Maixu jarrera hartuz) Ez dago horrenik. Baina ulertzen dut zure erasia. Izan ere abstrakzio mailan ari garenez ukoak dirudite. Abstrakzio oro konkretorearen uko baita. Zientzia bera ere, bai, beti da konkretorearen ukoa, abstrakzio denean, alegia. Eta hala ere, abstrakzio osasungarria da zientifikoena. Eta zientzia guztien artean politikoa da konkretorea. Zientziaren alorra objektiboa delarik, subjektibo oro kontsiderazioz kanpo uzten da. Are gehiago, subjektibo oro ere, zientzia mailara eramatean objektibo bihurtzen dugu. (Isilune bat) Ulertuko duzu! Gure kategoria zientifiko hauek konkretora aldatzean emaitzak agertuko dira. Eta norik ez du fruituetatik zuhaitza ezagutzen!

GUARDIA I: (Guardia Generalaren mailan hitz egin nahirik) Zientifikoek hitzak beti aurkitzen ditut astunak. Baina, zientifikoek hitzetan etorkizunari so, badut fedea. Kontuan hartzeko haina frogak eman baidizkigute. Garbi ageri dira ere amerikanoen, aurrerapenak. Eta guzti hori zientziak ekarri omen die. Zientzia hori gauza handia da nolana horikoa izanik ere.

GUARDIA II: (Guardia I-aren pareko jartzen saiatuko da) Ni ere zientzia zalea naiz, noski. Gaur egun zientziatzeko gizakiak baitira munduko jaun eta jabe.

GUARDIA I: Jabe, eta zorionez!

GUARDIA II: Osasuna dugu horren emaitzarik bikainena. Gizakia mila legenetatik askatzea lortu dute. Gure ekintzaren norabidea bide horri laguntza ekartzea izan behar du.

GU.GE.: (Zerbait haundia esatera doala erakustera ematen du) Gaur egun gure kezka den hau, nola eoi dezakegu zientifikoki? (Isilune bat) Gure menpe daukagun hiritar multzo honetan etsai bakarra, abertzaletsun itsua da. Bai, gizakientzat hain osuntsu den begirada unibertsala, berekoitasun es-tuenetik eraman nahi duen proiektua. Ito larria besterik ez dakar. Ba, horren gauzapena gizarte honentzat izurritea litzateke. (Isilune bat) Baina, analisisan jarraituz beste zerbait ere ageri zaigu. Abertzaletasun hori defendatzen duten gizakiak ez direla naturaz berdin dotatuak. Horiek kategorizatzen baditugu badira kapitaldunak, euren irabaziak, lurretik edo fabriketatik, jende xumearen kontura ateratzen dituztenak. Badira ere, dendari, bulegari eta abar bitartekaritzatik bizi direnak. Gizartearen zubigunea osatzen dute. Azkenik, langile bezala izendatzen ahal dugun taldea daukagu. Izan daitezke fabrikanteak baina berdin baserritarrak ere. Perpausa batekin agertuz, egunean eguneroko ogia lanaren emaitza dutenak direla esango nuke. Lan uzte txikienak eguneroko ogi gabe uzten dituztenak dira.

GUARDIA I: Egin duzun iruzkinean, abertzale arazoa, puntu finkora eraman duzu. Izan ere, abertzale ilusioa, naturak gizaki bakoitzari emana zitalki de-



safiatzean baitago. Horrela gaurko gizartean ageri diren desberdintasunak naturaren emaitza besterik ez lirateke.

GUARDIA II: Ekonomia dimentsio hori garrantzizko deritzait. Baina gure arazoen sorburua beste alor batetik datorrela esango nuke nik. Ekonomia dimentsioa lurralde guztiei komuna zaienez, berezitasuna egiten duen beste hori izendatu behar dugu. Ekonomia aldaketan oro balego, alde batera bultzatu eta kito legoke. Baina, herri abertzaleak ekonomia egituren gaineratik, hazi berekoia pribilegiatzen du.

GU.GE.: (Guardia I-ari so) Ulertzen dut zure adierazpena. Hitz bitan honela definituko nuke: menperatu ditugun hiritarren berezitasunak txehetu beharra daukagu. Funtsean, abertzaletasuna beste arriorik ez daukagu hemen. Ekonomia borrokarekin hiritarrak liluratu nahi dituztenak, gurera itzuliko dira utopiaz aspertzean. Eta bienbitartean aliatu izan daitezke abertzaletasuna hiltzeko proiektuan.

GUARDIA II: Abertzaletasuna dugu sendatu beharrezko eritasuna.

GUARDIA I: Euskaldun abertzaleen gaitza existitzen dela dio nire esperintziak.

GU.GE.: Abertzaletasunak, zain ugariko soina du. Askotan, badirudi, amaeslarien ideia bat dela, ez da egia! Ideia bat ezezik askorentzat bizitzari zentzu emazten dioena baita. Eta bizitza eskuartean biltzea zail da. Limoriegi gerta baitaiteke gordetzeko. Edo esku pean dagoelakoan birrinduaz ihes egin dezake.

GUARDIA I: (Girgailuak eskuan dituela) Abertzale  
juantxoak ekonomiaren pribilejioekin liluratuak  
izan daitezkeela deritzait. Horrela korapilo bat  
askatuko dugu. Ekonomia dimentsioa erabilgarri  
izan dakiguke.

GU.GE.: Eskuan luma bat ageri du) Ezbairik ez, aber-  
tzale jauntxoak gureganagarriak ditugu.

Are gehiago, hiritar multzo horrek idolo bilakaraz-  
ten dituen seme-alaba hoberenak ere. Horien arte-  
ko lirateke, pentsalari, artista, kirolari edo langile  
nabarmenduak. Hauek gureganatzeko lain bagara,  
horien jarraitzaile den hiritar multzoa hurbilduko  
digute. Hiritar xehea kraistudun zaldi bat bezala  
baita. Kraistudun zaldiak, idolo koxkor horien ka-  
sua, kontrolatua izan dituzte.

GUARDIA II: Zaldi dema gaitza da euskaldun aber-  
tzale hiritarren artean.

GUARDIA I: Erremalen jabe egin behar gara.

GU.GE.: Horretarako kuraia eta ordena konbinatu  
behar dira.

(Orain, atea jotzen du norbaitek)

GU.GE.: (Atera so) Bai, sartzeko baimena duzu.

(Guardia uniformedun jaun bat sartzen da. Es-  
kuan gutun batzuk eta egunkari bat dakartza.  
*Firmes* keinua egiten du sartzean. Guardia Ge-  
neralaren mahaira hurbilduz berari uzten dizkio  
ekarri dituenak. Beste *firmes* keinu bat egin eta  
kanporako bidea hartzen du)

GU.GE.: Gutunak banan-banan ikusten ditu. Ondo-  
ren, egunkari bat eskuan hartzen du. «*Le monde*»

dela ageri da. Orriak pasatzen doan heinean hitz hauek esango ditu)

– Egunkari honek eta honen antzeko beste batzuk garrantzi handia daukate guretzat. (Isilune bat) Zergatik? Hara! egunkari hau mundu osoan zabaltzen da. (Begirada egunkarian emana dauka beti) Mundu mailako politikoen aurrean harrera baikorra dauka. Oso kritika zientifikoak dira bertan egiten direnak. (Orain Guardia biei so) Eta hortik zer datorkigun? Hara! egunkari honetan gutaz irudi ona pasatzen baldin badugu, munduko politiko onenen artean aintzakotzat hartuak izango gara. Hori da jokuan dagoena. Eta hori ez da txantxetan hartzeko gauza. Gure hiritarren artean onartuak izatea bezain garrantzizkoa da jakintza politikoen aldetik onarpena lortzea.

GUARDIA I: (Guardia Generalaren dinamikan jarriz) Eta gure alde jokatuko duten idazleak nola erdietsi?

GU.GE.: (Beti *Le monde*-n begirada duela) Nazio guztietan daukagu zenbait kazetari helburu horrekin guk ordainduta ari denik.

GUARDIA I: (Hau ere, Guardia Generalaren ikuspegitik hurbildu nahirik) Eta euskaldun hauen artekoak gure alde joka dezaten prestatzeaz zer?

GU.GE.: (Oraino ere *Le monde*-ra begira) Dena planifikaturik dago. Prentsa alorrean ere, hiri bereko seme-alabek gure alde jokatzeko badu garrantzi berezi bat, noski.

GUARDIA I: (Guardia Generalak irakutzen duen egunkarira so) Gazte horiek langile semeak badira hainbat hobe! Horrela tiro batekin bi txori hildo genituzke.

GAUDIA II: (Aurrekoaren ausardia parekatu nahirik)  
Abertzale giroan idolo direnak gureganatu behar  
ditugu ere.

GU.NE.: (Egunkaria mahai gainean uzten du, eta  
Guardia biak begiratzen ditu) Guzti hori planifika-  
turik dago. Bainna, bienbitarteko epean, atzerrita-  
rren artean nonbratuak direnak gureganatzen ere  
saiatu gara.

GUARDIA II: Herri bateko bizitzan hutsunerik ez da  
onartu behar.

GUARDIA I: Gizarte bizitza ez da norabide gabe ha-  
labeharrezko saltoz orekatzen.

GUARDIA II: Matisaltoak gizakiengan hauek abs-  
traktuan bizi direnean bakarrik ematen dira.

GU.GE.: Politikoen eginkizuna egituren planean  
jarraipenak goruetatzen ibiltzea da. Kontrakoa de-  
nean iraultzaileei lurra prest-prest jartzen baitzaie.

GUARDIA I: Atzerriko egunkariekin ere antzeko lo-  
gika erabili behar da, noski. Politiko kontserbatzai-  
leentzat gure menditxoak zelai bailiran ager daite-  
zen.

GUARDIA II: Horretarako horien iturrietan eragina  
eduki behar da.

GUARDIA I: Horregatik zaigu garrantzizko atzerriko  
egunkarietan ematen den gurekiko irudia zaintzea.  
Ulertzen da atzerriko politikoen egarria kontuan  
hartu beharrezkoa dela.

GU.GE.: (Berriro egunkaria irekitzen du) Gaurkoan  
ere agertzen da gure landike horietako baten ar-  
tikulua. Hara! nola izenburutzen duen: «Berekoi-  
tasunaren zizpriztinak» Eta hau dio: Gizarteko

legez animalien basoko borroka ipini nahi dutenez, zer? Ahots betez gizartearentzat ezkabia direla salatu behar da. Eta ondorioz garbi dago ezkabia hori borrokatzen dutenak gure laguntza osoa merezi dutela. Hiritar guztiok euskaldun abertzaleen ezkabia deseitzen bat izan behar gara. Batasun eta unibertsal begiradaz lanean ari direnak gure sostengua izango dute. (Isilune bat) Eta gisako argudioak ematen jarraitzen du. (Orain irrifarre eginaz Guardia biei begiratzeko die aldi berean). Benetan zoragarria da kazetari honen dialektika. Honen bidez, ziur naiz, munduko politiko nagusien artean harre-  
ra egingo digutela. Ezbairik gabe, gure ekimenean garaile gertatuko gara.

GUARDIA I: (Guardia Generalaren parean agertuko da). ez da kamutsa! Eta ohartun da abertzaleen hazio delako galerazi behar dena.

GUARDIA II: (Hildo beretik ere) Zientziak asko dezake. Nork uka dezake artikulu horren mezua?

GU.GE.: (Gauza berrien adierazle den keinu bat islatzen du) Guzti hau prentsak daukan garrantzia nabarmentzeko izan da. Baina, badago besterik ere. Hiri bat ardatz bakarrean lotzeko, mentalitate bakarrera eramateko, kultura bere alor guztietan landu behar da.

GUARDIA I: Gizakiari beregan eragina duten iturri guztietatik gauza bera adierazi behar zaio, noski.

GU.GE.: (Hari berari tiraka) Irrati, telebista, zinema eta beste informazio tresnak oro, hats honeguz gainezka bete behar ditugu. Lainokada bat euri baino ureztatze hoberik ez dago.

GUARDIA I: propaganda gurdika hedatu behar da.

GU.GE.: (Harian areago joanez) Propaganda modu asko dago. Batzuk zuzenean eramanak ohi dira. Gaurko tentsio giroan ez dira onenak. Horrela jardunaz, hiritarren artean dauden zauriak, irekiago egitea besterik ez baigenuke lortuko. Baina, badago beste propaganda modurik. Zeharka jardunaz jende xehea ohartun izan gabe egiten dena. Eta gaurko egoerarako aproposena da.

GUARDIA II: (Berekoitasun pixka bat ageri duelarik) Dena dela, jendea liluratu egin behar da. Garbi dago!

GUARDIA I: (Guardia IIaren ausardia ezetziz) Liluratu ezezik ezkabia daramaten zainak kixkaldtu behar dira. Bestela, luzaro gabe, berriz ere, kimu berriak ematen ahal ditu. Eta horrela eritasun katea luzatzea besterik ez genuke lortuko.

GU.GE.: (Diplomazia erakutsiz) Intxaurrari txurgalduz mamia jan ohi zaio. Guk ere, hiritar multzo honi, txurgalduz mamia jan behar diogu. Bestela, kimu eta zuhaitz berriak izango ditugu.

(Orain telefonoa joka jartzen da)

GU.GE.: (Eskuan hartzen du telefonoa) Bai, ni naiz! (Isilune bat) Hortaz zerbait pentsatua dut (Tartea) Hala ere, erraza kontsideratzen. (Tartea) Baina, azken kolpeak dena merezi du. (Tartea) Berehala bidean jarriko naiz. (Tartea) Bai, segituan hor izango naiz. Agur; (Orain Guardia biei hitze eginez) Beste aldi batean gaur hemen hitz jario atera diren hauek konkretatuko ditugu. (Isilune bat. Pentsati...) Badakit denborarik galdu gabe obratzen hasi

behar garela. (Isilune bat) Eta hutsik gelditu den baserria betiko erara zaindu beha da.

GUARDIA I: Lehen auzoa baserri hutsaren jabe izendatuz?

GU.GE.: Bai, baina, jabe berria nor den aurrez ongi ezagutu behar dugu. Jarraian arauak agintzen duten eran oro egin beharko du.

GUARDIA II: Animaliak, etxea eta lurralde usadioan bezala erabil ditzala.

GU.GE.: Hiritarren aurrean ordena itxura ezarri behar da; funtsezko printzipioa da hori. Baita, zarata atera dezaketen gora-beherak ahalik eta hobekien erabaki.

GUARDIA I eta II: Ados!

GU.GE.: Biok joan behar zarete. Ibilaldi itxuran. Hiritar multzoa gardien ibilaldiak onartzen hasi behar da.

GUARDIA I: Esanak oro egintza bilakatuko dira.

GUARDIA II: Berehala konponduko dugu.

GU.GE.: (Jeikiatz) Solas hauek emaitza ekarri behar dute. Beste batean jarraituko dugu elkarrekin solasten.

(Orain Guardia I eta II (Jeiki eta murruren kontra dauden iskiluak errekuperatzera doaz)

GU.GE.: Presaz nago orain.

Guardia I eta II *firmes* keinu eginaz agurtzen dira. Badoaz. Guardia Generalak *firmes* keinuz erantzungo die.

OIHALA

## HIRUGARREN EKITALDIA

Jokalekua: Lehenengo ekitaldiko berbera. Sutea eta bertako ontziak. Guardia biak alde egitean utzi duten egoera ageri da. Oihala altxatzean inor ez dago barnean. Berehala, ordea, Palata II sartuko da. Ageri duen arnasaren erritmoak lasterkada bizian jardun dela erakusten du. Arnaska sartuko da. Neska gazte xarmanta da. Hamaseitik hemezortzira artekoa. Base-rritar jazkeretan apaindua dago.

PALATA II: (Sartzean aurkitu duen egoerak harriturik zergatik den horrela jakingura du)

Ez nuen Muskiren sukaldea ezagutzen! (Bata ukitu eta bestea ukitu, gelditu gabe jardungo du) Behin edo beste atarian egona nintzen, baina barruan selulan ez! (Pausa) Ez dago gaizki, baina, biziki xehea iruditzen zait. Ez da harritzekoa! Aspaldian emakume gabe bizi dira. Nik berehala edertuko nuke Muski maitea...! Eta nire gurasoek ez dute maite...!

(Orain alboan hitz egiten entzungo dira. Une honetan Izozko, berrogeita bost urte inguruko gizona eta Palata I bere emaztea sartuko dira Izozko edozein baserritarren antzera jantzirik dago. Buruan txapela darama. Palata I berriz berrogei urte inguruko emakumea da. Oraindik gazte airea du. Etxeko jazkeretan dator. Burua zapi batekin estaltzen du)

IZOZKO: (Palata II-ri mintzatuz) Ikusmiran al zabil-tza? (Palata II-k ihardetsi gabe berearekin jarraitzen



du. Bienbitartean, isilune bat egiten da. Orain Palata I-i mintzatuz) Zer deritzazu abelera hau?

PALATA I: (Izozkori) Gaztetxo baten berri egarria nuen.

IZOZKO: Bi abere gorrik ez zaituzte aseko.

PALATA I: Berri usaina beti da egarri emaille.

IZOZKO: (Palata II-ri mintzatuz) Enetxo, deabru kutsutik libra gaitezen, Jauna eskertzea bezalakorik ez dago. Etxe honetako gure oraingo jabetza, dohain bat dugu. Jaun sainduak beraren beldur den gizakia etengabe aberasten du. (Une guztian Palata II-k ikusmiran jarraitzen du. Orain Izozko burutik txapela erantzi eta errezatzen hasten da) «*Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena, betor gugana zure erreinua, egin bedi zure borondatea, zeruan bezala lurrean ere*».

PALATA I eta II: (Errezoan sartzen dira) «Eman egiguzu gaur gure eguneroko ogia, barka iezazkiguzu gure zorrak, guk ere zordunei barkatzen dizkiegun bezala, ez gaitzatzula utzi tentazioan erortzen, baikizan libra gaitzazu gaitzetik».

(Palata II errezo une osoan, gauza bat ukitu eta bestea begiratu ariko da)

IZOZKO: (Palata II-ren jokaerak sutu egiten du eta honela mintzo zaio) Hori ez da Jainkoa eskertzeko era! Jainkoari otoitz egitean arretaz otoitzean kontzentratu behar da. Egin duzun ofentsa erreparatzeko, orain *Agur Maria* bat esango dugu. (Beste gabe errezoa hasten du) «*Agur Maria, graziaz betea, Jauna dago zurekin, bedeinkatua zara zu, andre*».

*guztien artean eta bedeinkatua da zure sabeleko fruitua, Jesus».*

PALATA I eta II: (Oraingon biak ageri dira kontzentratu-rik) «*Santa Maria Jainkoaren ama erregutu ezazu gu pekatarien alde orain eta beti gizaldi guztien gizaldietan».*

IZOZKO: Legearen onarpena, ordena, behar dugu mundu honetan!

PALATA I: (Irratira hurbilduz, hari begira ipintzen da) Irrati honek baliotsua dirudi!

IZOZKO: (Irratira so) Deabru-ek, gorri-ek, Jainko ga-beek, edozer eta edozein erdiesteko trikimailuak dituzte.

(Orain Palata II-k irratira hurbilduz, abian emango du. Lehen lehenik propaganda komertziala entzungo da. Une batez jokalekuko hiru pertsonak ixildu egin dira. Eta berehala «*información regional*» izenburua iragartzen da)

IZOZKO: (Alaitu egin da) Gure berriak ditugu! Jainko zaleen berriak, noski!

(Orain irratilariak beste hau esango da: «*Ultima hora, las tropas regionales siguen controlando el entorno. Los cruzados siguen imponiendo la ley. La paz, el orden, el bienestar están a punto de ser realidad en toda la nación. Por la gracia de Dios una vez más lo divino se va a imponer a lo humano*».

(Musika klasikoak jarraituko dio)

IZOZKO: (Zorionez gainezka, bere larruan ezin kabituz) Oraingoz aski dugu! Itzali irрати hori!

PALATA I: Biziki musika ederra da!

IZOZKO: (Palata IIri) Itzaltzeko esan dizut.

(Palata II-k irratia itzaliko du)

IZOZKO: Garaipen zoriontsu hauek eskertzeko Jauna goraipatu behar dugu (Beste gabe, egunero usadioa balu bezala, ondoko abesti hau abestuko du) «*Jainko santua, Jainko indartsua, Jainko hilezkorra, gaitz guztietatik libra gaitzatzu Jaunak*».

(Orain Palata biek, euren artean norma balute bezala ihardesten diote)

PALATA I eta II: «*Jainko santua, Jainko indartsua, Jainko hilezkorra, gaitz guztietatik libra gaitzatzu Jaunak*».

IZOZKO: Euskal abertzaleak deabru seme-alabak dira.

PALATA I: Eta deabru seme-alaben ondasunez jabetu behar al zara?

IZOZKO: Ondasunak oro Jainkoarenak dira!

PALATA I: Etxe osoa ikuskatu behar dut.

PALATA II: Baita nik ere

IZOZKO: Ondo da, baina, lanean hasi behar gara.

PALATA II: Zer lan dago bada?

IZOZKO: (Surtara hurbilduta) Hemen dago pertza erdi egosia. Hau egosi behar dugu lehenik.

PALATA I: Ganaduei bertan jaten eman behar al diegu?

IZOZKO: Erdizka egindako lanak ageri direnez, gaurkoa hemen bertan amaituko dugu! Ondoren gure etxera eramango ditugu! (Orain Palata IIri so) Zotz batzuk ekarri behar dizkidazu! Sua errazago piztuko da.

(Palata II berehala doa zotzen bila)

IZOZKO: (Palata I-i mintzatuz) Etxea ikusi behar baduzu, egin lehenbailehen bisita!

PALATA I: Agamundaren baserriko gelak kuxkuxea-tzea gogoko zait. Egia esan, zertxobait ikusteko irrika ere, badut!

IZOZKO: (Sutea apaintzen ari da) Gorri horiek nola ez dira bada izango gauza ederren jabe! Zure irrika ulertzen dut nik neuk ere.

PALATA I: Nire bilakatzeak poz ematen dit!

IZOZKO: Hortan ados gaude!

PALATA I: Nahiz gorri direnen herentzia jaso, pozgarria da emaitza.

IZOZKO: Gorrien aberastasuna, lapurreta ohi da.

PALATA I: Gu oinordekoak berriz, saildutuak gara.

IZOZKO: Jasotzen ditugun ondasunei ordena eta disziplina jarri behar diegu. Aldiz gorrien eskuetan oro lardaska bilakatzen da. Desordena probokatzea beste helbururik ez baitute. Eta oro ez da guztiena. Oro Jainkoarena da. Jainkoak berriz, batzuk jabe eta beste batzuk mendeko izendatzen ditu.

PALATA I: Zu jabe ala mendeko izendatu zaitu,

IZOZKO: A zer galdera, ikusia dago jabe izendatu nauela.

PALATA I: Noiz eta nola ikusi duzu?

IZOZKO: Guardiiek hala izendatu nauten unetik.

PALATA I: (Ironiaz) Aaa, orain ulertzen dut zure diskurtsoa. Guardiengandik indarra, irabazleengandik agindua delarik Jainkoaren borondateada!

IZOZKO: (Minduta) Biraoa jaurti duzu! Jainko santua!

(Orain Palata II sartzen da eskuetan zotzak dituela)

PALATA II: Ekarri dut agindutakoa.

PALATA I: Aski dut! Banoa! (Jokalekutik irteten da)

PALATA II: Ni ere amarekin noa! (Irteten hasiko da)

IZOZKO: Alabatxo, beste zerbaiten beharra badut.

PALATA II: (Haserre) Beti berdin!

IZOZKO: Hala egin ohi dut. Ez dut ukatuko. Zuek berriz ikusmiran ezin asperturik ibiltzeko prest. Orain lasto izpi batzuk behar ditut.

PALATA II: Ekarriko dut eskukada bat. (Berehala bila doa)

(Izozko ixilik dago. Txotxak prestatzen ari da. Une batez jokalekua pausaturik dago)

PALATA II: Hara hemen! Aski al da? (Izozkori eskura emango dizkio)

IZOZKO: Bikain! Balioko didate.

PALATA II: (Tximista bezala ateratzen da) Amarekin noa!

IZOZKO: Zoaz, bai, Jainkoarekin! (Sutean jarraituko du) Jainkoa handia da! Bai, Jainkoak harrigarriak egiten ditu! Ez daukat inongo gertakizunik ezagutu beharrik Nire buruan miraria gertatu da. (Finean sua piztu du) Duela gutxi baserritar txiro bat nintzen. Ez nuen deusik. Eta gaur, politika dela medio, Jainkoaren alderdia aukeratu izanagatik, gorri izateari uko egin diodalako, egun bakar batzuetan lau baserriren jabe bilakatu naiz. Garbi dago, gelak Jainkoak baimentzen dituela, gizaki zuzenak lurrean ere zoriontsu daitezen. (Pertzeko egoski-

nak eragiten ari da) Eskerrik asko Jauna! Eskerrak komunista, euskaldun abertzale egitetik apartatu nauzulako. Eskerrak Jainko zale egin nauzulako; eskerrak ere, Ama Birjinari! Bai, bera beti maitatu dut bereziki. Saindu guztiak laguntzen jarrai nazazue.

(Orain Palata I berriz sartzen da)

PALATA I: Gauza ederrak badira etxean. Izozteko makina dute. Ikusiko duzu zeinen edari freskoak edango ditugun autengo udaran!

IZOZKO: (Sutean jarraitzen du) Ondo dago! Oro Jaunaren emaitza dugula ez ahantzi.

PALATA I: Jaunaren emaitzak edo guardien eskaintzak?

IZOZKO: Lehen ere esan dizut, nire aurrean ez ezazula biraorik jaurti. Jainko saindua!

PALATA I: Izendatze gora-behera beste diferentziarik ez dago adierazitakoetan.

IZOZKO: Izendatze saindua!

PALATA I: Benetan boteretsua!

IZOZKO: Jainkoaren ahalmena dago bitarteko.

(Orain isilune bat gordeko dute. Palatak hau-tsiko du)

PALATA I: (Sutondora hurbilduko da Ikusmirako aireak hartuko ditu) Aurreratuak daude! (Isilune bat) Ez al da horrela?

IZOZKO: Bai, eginak daude! Amaitzeko irekin bat eman eta kito!

PALATA: Etxeko gelak ere kapritxosoak dira!

IZOZKO: (Azken irekinean dagon pertzarekin ari dela) Animalia, gorri, Jainko gabe direnek gelak garbi edukitzea, ez da harritzeko komeria! Izan ere, egunaren buruan Jainkoarekin ez dute segundo bakar bat ere galtzen.

PALATA: Gizakiari garbitasuna kentzen dion Jainkoa, a zer Jainkoa!

IZOZKO: (Palata I-engan soa finkatuz) Biraoa biraoaren gainean! Jainko santua! (Isilune bat) Dohain bat birao batekin eskertu, a zer esker txarreko zaren!

(Orain isilune luzexago bat egingo da. Bienbirtatean Izozkok lanean jarraitzen du. Palata I, bere aldetik, burruntzaliak eta zintzilik dauden lanabesak aztertzen dabil)

PALATA I: Tresna hauek egoki etorriko zaizkit etxerako.

IZOZKO: ((Tesnetara so) Ez, horiek ezin ditugu gure etxera eraman.

PALATA I: Zer dela eta? Orain hemen ageri den oro al da guretzat?

IZOZKO: Ez dira guretzat. Tresna horiek Guardia Generalarentzat dira.

Harentzat gordetzeko agindua jaso dute.

PALATA I: (Haserre keinuz) Izan ere, Guardia hauek gogoko guztiaren jabe bilakatzen dira!

IZOZKO: Biraolari zara benetan! (Ahotsa gogortuz) Ez ezazula Jainkoaren beldur diren Guardian aurka sekula hitz egin. Munduko bekatuen erdian ainguruak dira.

(Une horretan Palata II, eskuan pitxarra duela jokalekuan sartzen da)

PALATA II: (Amari so) Ederra den zerbait aurkitu dut.

PALATA I: ((Beti ikusmiran dabil) Zer duzu hori?

PALATA II: Aita, ez duzula asmatuko?

IZOZKO: (Beti suarekin dabil) Ez dakit bada, zer izan daitekeen!

PALATA II: (Amarengana hurbiltzen da) Ikus ezazu zeinen marrazki ederra duen!

IZOZKO: (Entzuna entzun, Palatari II so jartzen da) Aaa! Antikuario edo horrelako zerbait izango duzu. Antikuarioak Guardia Generalarentzat gorde behar direla da agindua. (Sutondoa utzirik Palata II arengana hurbiltzen da zer duen ikustera)

PALATA II: (Aitari pitxar bat erakusten dio) Honek ez du guardien zorrik!

IZOZKO: (Sutan jarririk) Amaren alaba zara, bai! Alaba biraolariak! Bost eman eta hamar eskatu! Ez al dakizu dena doain dela? Guardia Generala Jainkoaren eskua dela!

PALATA II: Muskirena zen hau, eta hura lagun nuen.

IZOZKO: Gorri bat etxean? Ez, inola ere ez! Lehena-go etxetik botako zaitut.

PALATA: (Izozkori so) Zu, ematen dizunaren aldeko zara!

IZOZKO: Bai, Jainkoak bakarrik eman baitezake!

(Orain hiruek isilune bat gordetzen dute)

IZOZKO: (Palata Iri eskuan darabilen pitxarra kenduko dio) Ederra da! Jainkozaleren batek egina da! Santu baten irudia baidarama ertz batean. (Orain Palata biei erakusten die) Ikusten al duzue? Guardia Generalari grazia haundia egingo dio!



PALATA I eta II: Bai, irudi hori badu!

IZOZKO: Komunista, animalia, euskaldun abertzale horiek, pertsona santuak ahoz ukatu eta diruz erosteko lain dira.

PALATAI: (Pertzera inguratuz) Atera liteke, bai!

(Orain pertza elatzetik jaitsiko du. Eskuetan hartuz ganaduetara doa) Berehalaxe jaten emango diet. Laster naiz hemen!

PALATA II: (Amari so) Aita zoratuta dago!

PALATA I: Gerlari esker ondasuna ondasunaren gainean eskuratzen joan denetik, hala da!

PALATA II: Jarrera horrekin hori guztia kontzientzian zuritu nahi du.

PALATA I: Gure aitak asmatu duen ordain jarrera baltiz, huts! Guardia Generala da hiritarrak liluratzen dituen.

PALATA II: Jabetu naiz gizonezkoen joera dela, zentzu gabea bera justifikatzea.

PALATA I: Eta euren artean mitoa gogorren zerbitzitzen duena nagusi izendatzen dute.

PALATA I: Eta norbait «nagusi» bilakatzen denean, betikoa!

PALATA II: Bai, nagusitza lortuaz gero, ordena, konformitatea eta abar errekeritzen die gainerakoie!

PALATA II: Prentsa guztia euren menpeko daukate.

PALATA I: Armada ankerra kaleetandute!

(Orain isilune bat egiten da)

PALATA II: Ama, pitxar horren truke eraztun bat erosiko bazenit zer?

PALATA I: (Pitxarra eskuetan hartzen du) Lehendik dituzunak aski ez al dituzu?

Niregatik hor konpon baina, aitak ez digu baimenik emango. Aitari gordeko bazenio, besterik litzateke!

PALATA II: (Amaren aurpegia laztantzen du) Amatxo, biok elkarrekin konponduko gara!

(Orain Izozko pertza eskuean duela jokalekura itzultzen da)

PALATA I: (Izozkori mintzatuz) Itzuleran behiak ere gurekin izango ditugu. Hala ezta?

IZOZKO: Makina bat inbidia eman izan didate. Baina, horrelakoak dira Jainkoaren gora-beherak. (Orain pertza elatzean uzten du) Gaurtik nire gogoko behien jabe bilakatuko naiz.

PALATA II: Gaurkoz aski izango dugu, ezta?

PALATA I: Etxera sartu beharko gara.

IZOZKO: Bai, prest nago! Gaurkoz eskulanak amaitutzat ematen ditut.

PALATA II: Bukatu dituzunak eskulanak bakarrik al dira? Besterik ba al duzu bada?

IZOZKO: Ondasun hauen guztien jabe egin nauen Jauna eskertzea egiteko dut oraino. Bestela anker bat nintzateke.

PALATA II: Hori ere lan bezala hartzen al duzu?

IZOZKO: Eskerrak, eskerrak eman behar ditugu! Orain eskuratuko dugun ganadua sortez bilaka dadin, errosario bat errezatuko dugu.

PALATA II: Hori bidekari goazela egin dezakegu.

PALATA I: (Bere onetik atera xamar) Bidean erreztzen! Trabak besterik ez ditugu ibilbidean. Gero, erreztatzea hobe izango dugu.

PALATA II: Nire konformitatea duzu.

IZOZKO: Jainkoa eskertzeko ez dago leku eta une jakinik! Denak dira onak! Bidean erreztatzea ondo deritzait. Gainera esan dizuet, ganaduaren sorterako errosario bat lehenbailehen erreztatzea komeni dela.

Animaliak etxe berrian sartzetako egin behar dugu.

PALATA II: Egin beharbada, has gaitezen! Lehenbailehen etxera sartu behar gara.

PALATA I: Astoa nork hartuko du?

PALATA II: Ni naiz astozaina!

IZOZKO: Orduan zu jarri behar zara aurretik. Astoa gaueko animalia baita

PALATA II: Zerbaitengatik eskatu dut astoa!

IZOZKO: Astozainak errosarioa zuzenduko du.

PALATA II: Astoa aurretik hartu behar bada, zuk egin beharko duzu. Nik atzetik joan nahi dut.

PALATA I: (Izozkori) Zu zara errezoa zuzendu behar duena. Etxeko jaunaren egitekoa da hori.

IZOZKO: (Boltsikotik errosarioa aterako du) Gaur zer egun da?

PALATA II: Nekezko misterioak gogoratzea tokatzen da gaur. Ostirala da!

PALATA I: (Zintzilik ageri diren tresnei so) Hauek ere eramango al ditugu?

IZOZKO: Har ditzakezu. Horiek gordetzeko baimena dugu. (Zintzilik dauden tokitik hainbat tresna hartuz emakumeari emango dizkio) Hartu beharreko besterik ez al dago? Orain da gogoetatzeko ordua!

PALATA I: Ez, horiekin gaurkoa dena egina dago.

IZOZKO: (Errosarioa hasiko du) *Gurutze santuaren...!*  
*Jesukristo nire jaunaren...!* (Horretan, oihala jaitsiko da)

AMAIERA

## *EGUNERO IRAKURTZEN DELAKO*

### BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna.*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala.*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare.*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean.*
6. Aurelia Arkotxa: *Fragmentuak.*
7. Karlos Linazasoro: *Esan gabe doaz.*
8. Antonio Casado da Rocha: *Esku ezkerrez.*
9. Karlos Linazasoro: *Apenas.*
10. *Iragana gero eta handiagoa da.*
11. Fito Rodriguez: *Biktimari agurka.*
12. Txomin Peillen: *Jan Dabrowski.*
13. Mikel Ibarguren: *Bide batez esanda.*
14. Antonio Casado da Rocha: *Islandiera ikasten.*
15. Txomin Peillen: *Nina Waita.*
16. François Sureau: *Zurrunbidea.*
17. Karlos Linazasoro: *Zerua beti beherago dago.*
18. Kepa Fernandez de Larrinoa: *Jakintzaren bortizkeria.*
19. Jokin Apalategi: *Erbia biper beltxean bezala.*